



Xabier Lete

«Sufrimenduaren
esperientzia da
gizatasunaren giltza»

Argitaratu gabeko elkarrizketa

- **Net Hurbil** Ur eskasia dagoeneko arazo da Andeetan
- **Jorge Eduardo Elgezabal:**
«Gernikako bonbardaketaren detailerik txikiena ere akorduan daukat»
- **Mahai-ingurua** Ekonomian ere muga da Bidasoa
- **Nekazaritza** Energia aurrezteko teknologia garatzen ari dira
- **Bazen behin... bizitza** Marrazki bizidun ezagunak mahai-jolasean



EKOLOGIKOA, ORGANIKOA, NATURALA, IRAUNKORRA...



Alemaniko Eden kooperatiba ekologikoa XX. mende hasieran.

Nekazaritza biologikoaren ehun urteko aitzindariak




Albert Howard



Rudolf Steiner



Hans Müller



Masanobu Fukuoka

Elkarrizketa: Yvan Besson, *Histoire de l'Agriculture Biologique, une introduction aux fondateurs* liburuaren egilea.



Azaleko argazkia:

JON URBE /

ARGAZKI PRESS

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



gizarte
kutxa
zugandik zuguera



• **NON ZER** •

2010eko abenduaren 19a, 2.257. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Oskar Matute:** «Liderrak, zenbat eta urrutiago hobe!». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- Teknologia laborantzaren zerbitzura. UXUA LARRETXE / 5

Pertsonaia

- **Jorge Eduardo Elgezabal, Gernikako bonbardaketaren lekukoa:** «Gernika ikusten dut gauero etxeko telebistan». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Bazen behin... bizitza.** Osasunaz jostatzeko. IZADI AZKONOBIA / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Egia moztortuak. ANA URKIZA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- Intolerantziaren kiratsa. IMANOL ALVAREZ / 20
- **Txandan** Science in Basque. EDU ZELAIETA / 20
- Periferiara. ALAITZ VIVES / 21
- **Hiruko txikian** Makurka ta. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Xabier Lete zenari jarriak. JEXUX MARI IRAZU / 22

Erdiko kaiera

- **Xabier Lete:** «Ni ez naiz inoiz iraultzailea izan». LANDER ARBELAITZ / 23
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 31
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34
- **Abarrak** MIKEL GARCIA / 35
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Ekonomia mahai-ingurua.** Muga bat... bi errealitate? URKO APAOLAZA / 39
- **Arabako Euskaldunon Elkarguneen Topaketak.** Euskal guneak sortzen, eta elkar ezagutzen. MIEL A. ELUSTONDO / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Klima aldaketaren biktimak borrokan Ande mendietan. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Orga-ardatzak. BIXENTE SERRANO IZKO / 50

“Liderrak, zenbat eta urrutiago hobe!”

Oskar Matute | Alternatiba

Gure amonak, behintzat, botoa emango dio.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Bazen garaia! Politikari gazte bat, eta goapoa.
Ez hain gaztea, ez hain goapoa. Aspaldi ez zara okulistarenera joan?

Hain lasai zinateke enpresa batean, kontulari, eta politikan sartu behar...

Ez zait sekula sobera gustatu finantza-ingeniaritza, badakizu, errealtatea zenbakiakin makillatzea.

Arrazoi duzu, munduak aldaketa behar du; eta aldaketak, liderra!

Mundu honek aldaketa behar du, eta aldaketa hori gauzatzeko pertsona asko eta askoren borondate koordinatua. Baina liderrak... zenbat eta urrutiago hobe!

Aldaketa, politika parlamentariotik?

Itxaron, itxaron, udal hauteskundeak datoz lehenik. Dena den, ekintza politikoa ez da (zorionez!) instituzioetara mugatzen.

Momentuz, Donostian gobernatzen duzue, eta ez da gutxi. Baina bai arraroa.

Egia, ez da gutxi eta bai arraroa. Gure etorkizuneko apustua ezkerretara garbi lerratuta eta autodeterminazio eskubidearekin konprometuta daudenekin gobernatzea da. Eta biak errealtate bilakatzea zail ikusten dut PSEn, beraz...

Esperientzia gogorra behar du izan, bere burua “garbiki” ezkerrekotzat duenarentzat.

Zuzentzeko prest gauden kontraesana da.

Esaten duguna egin eta egiten duguna esateko ariketan sakontzen jarraitu nahi dugu.

Odonen arabera, ekarpen dezentekoa egin dionue Euskadiko normaltasunari.

Bada, kontuan izanda anormaltasuna dela gaurko politikaren joera nagusia, fruitu gutxi eman digu oraindik.

Ezker abertzalearekin ere lotzen dituzue akordioak. Transbertsalik bada, zuek!

Ezker abertzalearekin edo beste inorekin ditugun akordioak Julio Anguitak zioenaren menara daude: programa, programa, programa. Eta ez estetika transbertsaleko operazioen menpe.

Justiziari beldurrik ez, horratik.

Pentsatzen dudana defendatzeari ez diot sekula uko egingo, askatasun ariketa pertsonala dut. Hala ere, justizia egin dadin justizia existitu behar da, eta zalantzak ditut.

Nola daramazu antikapitalista izatea, hain mundu... kapitalistan?

Pazientziaz eta adorez, eta zergatik ez esan, etengabe kontraesanak gaindituz, edo gainditzeko saiatuz, behintzat.

Baina, kapitalismoaz harago, ba ote bizitzarik?

Alderantziz dakusat nik. Ba ote kapitalismoaren baitan gehiengoarentzat bizitza duinik? Argi dago nire erantzuna, horrexegatik naiz antikapitalista. ■

Nekazaritza

Teknologia

laborantzaren zerbitzura

Ordenagailu bidez ureztatzea, laborantza energetikoa sustatzea eta negutegietan hainbat alternatiba martxan jartzea. Horiek dira nekazaritzari begira une honetan Neiker-Tecnaliatik garatzen ari diren proiektu nagusiak. Xedea, nekazaritzaren geroa ziurtatzea.

UXUA LARRETxea

DANI BLANCO



Neiker-Tecnaliako langile Eva Ugarteren iritziz, nekazaritzak teknologia berrien abantailak aprobetxatu behar ditu.

BALIABIDEEN ERABILERA optimizatzeko asmoz, teknologia berriei ekimenak garatzen ari dira nekazaritzan. Ahalik eta efizienteenak izatea da asmoa, balibaideetan behar baino diru gehiago xahutu gabe. Halako ekimenak garatzen eta aplikatzen egiten dute lan Neiker-Tecnalia Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren edo nekazarien beraiei eskariz, sarri. Esaterako, ordenagailu bidezko ureztatzea lantzen dute, prozesua optimizatzeko asmoz. “Etorkizunean ur gabezia handia izango da; pentsa,

batzuek etorkizuneko urrea izango dela diote! Beraz, ura ezin da nahi bezala erabili eta horri begira heldu diogu proiektu berriari”, dio Eva Ugarte Nekazaritza Berrikuntza Unitateko zuzendariak. Horretarako, kontuan hartzen dute zein landare den —denek ez dute ur kopuru bera behar—, zein egoeratan dagoen landare hori —zelako zoruan eta zein ziklotan dagoen—, eta, azkenik, eguraldi aurreikuspena zein den. Aldagai horien baitan erabakitzen dute noiz ureztatuko den eta horretarako zenbat ur erabiliko den. Hori kontrolatzeko ordenagai-



Goian, ordenagailu bidezko ureztatzea. Eskuineko orrian, koltzaren kultibo energetikoa.

luaz eta sentsoreez gain, ingeniartza lan handia dago atzean. Sentsoreak nahitaezkoak dira landarea zein egoeratan dagoen jakiteko edo hezetasuna neurtzeko. Abantaila ugari ikusten dizkio Ugartek; hori bai, landareak eta uzta ondo ezagutu behar dira, zein behar duten eta egoera ezberdinetan nola jokatzuten duten zehatz-mehatz jakiteko.

Laborantza energetikoa

Laborantza energetikoa ekoiztean ere jarri dituzte indarrak Neikerren. Ondare energetiko asko (gasolina, kasu) agortze bidean daude, eta horren aurrean proposamen berria egin daiteke: bestelako landareak ekoizten diren moduan zergatik ez landare energetikoak ekoizti? Koltza edo ekilorea izan daitezke horietako batzuk, eta errotazio barruan txertatu daitezke; ondoren, horietatik energia edo gasolina atera daiteke, edo gero erretzeko erabili. “Une honetan egiten ari garen ikerketen bidez jakin nahi dugu landare mota berri horiek nola egokitzen diren gure zorueta, zein baldintza behar dituzten eta zein diren bide egokienak horiek gure ekoizpenean integratzeko”. Apurka-apurka ikerketa aurrerantz doa, eta bere fruituak ematen ari da. Une honetan martxan duten proiektu pilotuari esker olio atera daitezke dihardute, eta ondoren, lortutakoa erakundeko furgoneta eta traktoreetan erabiltzen da. Gainera, olio egiterakoan geratzen diren kondarrek animaliak elikatze balio dute.

Negutegietan aplikatzeko alternatibak

Negutegietan praktikan jartzeko hainbat alternatiba ikertzen ere hasi dira dagoeneko. Orain arte negutegiak berotzeko gasolioa erabili izan dute, baina hori garesti ateratzen zitzairen; nekazaria jabetzen zen negutegia berotzeak zekarren gastua batzuetan handiagoa zela bertatik ateratzen zituen etekinak baino. Horri irtenbidea emate aldera, negutegia berotzeko bestelako ekintza merkeagoak bilatzen hasi dira, baina ekoizpena eta kalitatea bere horretan mantenduz. Biomasa galdara erabiltzea da aukeretako bat; bestea berriz, negutegi osoa beharrean sustraiak soilik berotzea. Are gehiago, “zergatik ez hasi ekoizpen berriekin, gladiolo edo brokoliarekin, esaterako? Algen ekoizpena ere hor dago, eta horri esker, energia edo molekula lor daitezke, edota animaliak elikatze erabili”.

Bestalde, aipatu ditugun teknikak aplikatzeko eta emaitzak baloratzeko gunea behar dute, eta horretarako, nekazaritza elkarteetan baita dauden nekazarien lurra erabiltzen dituzte. “Une bakoitzean aztertu nahi dugun baldintzen arabera, lur eremu bat edo bestea hautatzen dugu, emaitza orokorrak lortzeko asmoz”. Esaterako, Araban Zanbranako lurretan ari dira proba pilotu horiek garatzen. Bertan soro asko dagoenez, hainbatetan hori egin ohi dituzte nekazaritzarekin lotutako probak. Bizkaian eta Gipuzkoan berriz, abeltzaintzarekin zerikusia dutenak egin ohi dira. Nolanahi, berrikuntzak txertatzeak lan esker-



ga inplikatzeko duela dio Ugartek: “Ikerketa gauza bat da, baina gero berrikuntza horiek zabaltzen hastean arazo pila bat sortzen da, eta hortaz, esperientzia pilotuak berriro errepasatu behar dira”. Hemengo nekazari eta abeltzainekin zorte handia dutela aitortu du Neikerekoak, probak egiteko prestutasun handia agertzen dutelako.

Berrikuntza horien balorazioa egiten hasita, Ugartek nabarmendu du nekazaritza lanbidea asko hobetu dela, baita nekazariaren beraren bizi kalitatea ere. Horren erakusle, honako adibide hau: orain nekazariak egunero ureztatzen joan beharrean, ureztatze sistema kontrola-

Ureztatzea ordenagailuz kontrolatzeko, kontuan hartu behar da zein landare den –denek ez dute ur kopuru bera behar–, zein egoeratan dagoen landare hori –zelako zoruan eta zein ziklotan dagoen–, eta eguraldi aurreikuspena zein den

tzen den zentrotik ureztatu ditzakete euren lurrak. Dena den, horrek bigarren irakurketa bat ere badu; izan ere, teknologia zenbat eta gehiago txertatu, orduan eta gutxiago beharko da nekazariaren eskulana. “Egia da lanpostuak arriskuan jar ditzakeela, baina era berean modu horretara nekazariak denbora libre gehiago izango du, eta denbora hori gauza berriak egiteko erabil dezake”. Gainera,

berrikuntza horiek txertatu ezean nekazariaren lan baldintzek ez dutela hobera egingo gogorarazi du, eta horrenbestez, nekazari berri gutxi erakarriko dituela sektoreak, bereziki gazteen artean. “Bi aukera daude gazte jen-



ogiaren egia

*Denda berritu dugu!
Zatoz eta bidaiatu
iraganeko okindegi
xarmant batera*

**Galparsoro
OKINDEGIA**

*Antzinako ogiaren
kabia bihurtu baitugu
denda zahar berria*

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074



**ellaURI
HOTELA**

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellaURI.com

Natura sentitu



Negutegietan alternatibak lantzen ari dira ikertzaileak, efikazia handienaren bila.

dea erakartzeko; edo bokazioak bultzatuta hasten dira, edo lan baldintzak hobetzen dira teknologia berriak txertatuz”.

Kontuak kontu, azal dutako teknologia edukitzea garesti irten daiteke, bereziki nekazari xumeentzat. “Berrikuntza teknologikoekin beti gertatzen den moduan, hasiera batean oso garesti irteten da, baina finean etorkizunari begirako apustua da”. Neiker-Tecnaliaren lanaren %70 Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du eta ondorioz berrikuntzak txertatzea agintarietara ere interesatzen zaie. Eva Ugarteren ustez, teknologia berrien aldeko erronkak ez du soilik nekazarien esku egon behar, gizarteak ere badu zeresanik. “Jendea ohartu behar da hemengo baserriko produktuak jateak kostu bat duela, eta beraz, kostu hori bere gain hartzeko prest ote dagoen edo ez pentsatu behar du”.

Nekazaritza Berrikuntza Unitateko zuzendaria baikor ageri da eta nekazaritzak etorkizuna duela sinetsita dago; argi dauka, gainera, hemendik hamabost urtera ikusiko dugun ereduak ez dela gaurko bera izango. Bere ustez, nekazari gutxiago ariko dira, baina horiek pro-

Negutegia berotzeko ekintza merkeagoak bilatzen hasi dira, ekoizpena eta kalitatea bere horretan mantenduz. Biomasa galdara erabiltzea da aukeretakoa; bestea, negutegi osoa beharrean sustraiak soilik berotzea

fesionalagoak izango dira eta berrikuntzekin lan egingo dute. Izan ere, gaur egun Neikerren esperimentatzen ari diren berrikuntza asko nahikoa garrantzitsuak dira ordurako, eta nekazari eta abeltzainek egunero jardunean aplikatuko dituztela konbentziturik dago.

Duela urte batzuk, ahalik eta gehien ekoizteko eskatzen zitzaizkien nekazarietara, hori zen eredu nagusia. Egun, aldiz, aldatu egin dira jokoaren arauak: arantzelak desagertzearekin batera ekoizpena beste herrialdeetatik ere etortzen da hona, eta zaila da prezio aldetik horiekin lehiatzea. Nola egin aurre ekoizpen merke horri? Bada, produktu hobekien kaleratzea. Hala, orain nekazarietara gehiago exijitzen zaizkio Eva Ugarterek: “Ekoizteaz gain beste aldagai batzuk kontuan izan ditzatela eskatzen diegu; hala nola, kalitatea bermatzea, osasun baldintza zorrotzak betetzea, ingurumena ez kaltetzea eta nekazaritza bera iraunkorra izatea”. Eskatu bai, baina gero nor dago produktu horientzat gehiago ordaintzeko prest? “Egia da erosleen artean batzuek aldeko jarrera dutela, kontzientziaturik daudelako

Profil berria

Euskal Herriko nekazariaren profila aldatzen ari dela adierazi du Neiker-Tecnaliako langile Eva Ugartek. Profesionalagoak ei dira sektorean gelditu diren nekazariak, ezagutza gehiago dituzte, eta lan egiteko beste modu bat. “Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak bokaziozkoak dira nagusiki, baina era berean, eta logikoa da, beste jardueretako abantailak eta eskubideak ere nahi dituzte, oporrak adibidez”. Lurreko produktuek eta animaliek ez dute, ordea, oporrik hartzen eta ezin

horiek bere horretan utzita alde egin. Beraz, baliabideak bilatu behar dituzte hori posible egiteko. Aukera bat izan daiteke elkarrekin antolatzea, kooperatiba gisara aritzea, alegia. Adibidez, ukuilu baten ardura nekazari batek soilik bere gain hartu ordez, lauzpabosten esku utz daiteke, eta horrela, euren artean lana txandakatuko lukete. Horren ildora, zenbait kooperatibetan martxan dago jada ekimen eredu bat, zerbitzu gisara oporren ordezkapenak egitea eskaintzen duena.

eta gaitasun ekonomikoa badutelako, baina hori ez da joera orokorra”. Askok, oraindik ere, salgai merkeenera jotzen du.

Bestalde, ekoizpenetik bertatik ez dira etortzen irabaziak, ekoizpen horien transformaziotik edo eraldaketatik baizik. Hau da, esnea ekoiztetik baino, gazta egitetik. Beraz, Ugarteren aburuz, produktibitatea bermatzeko nahitaezkoa da nekazariak ekoizpen prozesu guztia bere gain hartzea: beraiek ekoiztea produktua, beraiek eraldatzea eta beraiek saltzea. Alta, nekazari guztiak ez daude horretarako prest.

Ekoizpen prozesu guztiaren ardura hartzeaz gain, nekazaritzak etorkizuna izango badu, Neiker-Tecnaliako langileak beharrezkoa ikusten du berrikuntzak txertatzea. Nekazarien artean, baina, ez omen dago ohitura handirik aurrerapenak aplikatzeko eta hori, bere hitzetan, oztopoa da aurrera egiteko: “Nekazari askok eguneroko ogia irabaztea dute helburu, eta ez epe luzera etekinak ematen dituen berrikuntzak euren jardunean integratzea”. Aitzitik, aldaketa horien inguruan lan handia egin da azken hamabost urteetan eta hobekuntza programa ugari txertatu dira. “Poliki-poliki geroz eta handiago da profe-

sionalizazioa eta hain justu horiek dira sektorean irauten ari direnak”. Horien artean gazteak nabarmendu ditu: prestatuagoak datoz, eta berrikuntzekiko jarrera irekiagoa daukate.

Hala, molde berriak zabaltzen ari dira azken boladan: hala nola, hor ditugu nekazaritza ekologikoa, zenbait herritan egiten den etxez etxeko nekazal produktuen banaketa edota dagoeneko martxan den eta eguneroko esnea ematen duen makina. Horrelako ekimenak baikorki baloratu ditu Neiker-Tecnaliakoak: “Bi gauza lortzen dira iniziatiba horiekin:

irabaziak handitzea eta gainontzeko sektoreekin harremana izatea”. Azken horri ezinbesteko iritzi dio, nekazariak ezin baitira gizartetik at bizi. Baina Ugartek ohartarazi du alternatiba guztiek ez dutela denentzat balio, eta horien atzean lan handia dagoela, zuzeneko esne salmentarekin gertatzen den moduan: oso ondo antolatu behar da, makinak erosi eta mantendu behar dira, osasun baldintza zorrotzak bete behar dituzte...

Teknologia dela, eredu berriak direla, laborantza aldatzen joango da, dudarik gabe. Baina gauza bat behintzat garbi du Eva Ugartek: “Ezin dut irudikatu Euskal Herria lehen sektorerik gabe”. ■

“Bi aukera daude gazte jendea sektorera erakartzeko; edo bokazioak bultzatuta hasten dira, edo baldintzak hobetzen dira teknologia berriak txertatuz”

EVA UGARTE, NEIKER-TECNALIA



● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



BIZKAIA
BIZIA

Jorge Eduardo Elgezabal

«Gernika ikusten dut gauero etxeko telebistan»

Arrozarena kubatar historialariak eman dizu albistea Habanan: “Gernikako bonbardaketaren lekuko bat, bakarra, duzu bizirik uhartean. Jorge Eduardo Elgezabal du izena, eta Cienfuegos bizi duzu. Ez dakizut besterik”. Eta autoa negoziatu, hartu Jose Enrike Urrutia Capeau idazle eta margolaria laguntzaile eta bazoazke 400 kilometro eskaseko abenturan, morroia aurkituko duzulakoan... Bai aurkitu ere, Cienfugoseko jesuitek lagundurik, Caonao herrian.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Kuban jaio, hazi eta bizia zarena zaitugu, baina Gernikan zinen 1937ko apirilaren 26ko hartan, bonba zaparradapean...

Azalduko dizut, atal bat besterik ez bada ere, idazten ari naizen liburuan kontatuta daukat-eta. Aitaita-amamak, gurasoak, nire bi anaia-arrebak eta denok Espainiara joan ginen 1932an. Galiziara abiatu ginen, A Coruña, hain zuzen, aitaita han jaioa zen-eta. Errementaria zen, ondo lan gogorra! Horrek izorrratu zuen. Lan handia egiten zuen, garrantzi handikoa garai hartan. Korapilo asko askatzen zituen! Baina, badakizu, forja eta mailua ez dira lagun errazak, oso biolentoak baino. Eta, osasunez makal, medikuek herrialde hotzagoa agindu zioten. Lehenengo AEBetara joan ginen. Lau urte igaro genituen han. Handik, A Coruña herri txiki batera –aitaita hangoa zelako, bistan da–, eta atzera Kubara etorri baino lehen, aita beraren familia eta herrialdea ere ikusi genezan nahi izan zuen; bisita egitea. Eta horrela heldu ginen Gernikara 1935ean. Etxeko txikiena nintzen ni, 10 urte nituen. Horixe gure historia ordu arte. Gero, bonbardaketa izan zen, eta kito.

Aitaren aldeko familia gernikarra zenuten, beraz.

Bai, baina utzidazu esaten idatzi dudan liburuko beste atal bat. Gorriak ikusi genituen

Gernikan, bonba egun hura baino lehen ere. Bi urte haietan goseak bizi izan ginen, eta hotzak. Gu kubatarrak ginen, klima tropikala dugu hemen, beroa dugu egunero ogia, eta han (bai Galizian eta bai Gernikan), hotza hezurretaraino sartzen zitzaigun. Eta gose handia ere pasatu genuen. Gogoan daukat behin jan guela okela. Behin! Gure jatekoa barbantzuak eta ogi pusketak zen. Gehiago ere esango dizut, eta egia da: gure aita mendi aldera joaten zen, inguruko soroetara, belarren baten bila, amak egiten zuen zopa moduko hari gustu apur bat emateko. Geure buruak engainatzeko, pentsatzen dut nik. Ez zen erraza, gero! Badakizu nola den esaera hemen: “Ez da erraza!”, baina orduko denbora hartan, Gernikan ere ez zegoen erraz! Etxeko txikia nintzenez, neu nintzen iluntzean ohera tripan zer edo zer sartuta oheratzen zen bakarra. Eta ezta beti ere! Gure gurasoak, eta nire anai-arrebak, tripa-hutsik sartzen ziren ohera. Eta pentsatu ere ez Kubako familiak guri laguntzerik. Alderdi hura blokatuta zegoen, Espainia iparralde hura, esan nahi dut. Gerra zen. Eta 1937ko apirilaren 26an, bonbak bota zituzten hegazkin alemanek. Egun hartan jausi ziren bonbak, baina lehenago ere askotan jo izan zuten alarma, eta egunero joaten ginen zegokigun babeslekura. Etxetik hur zegoen, kale batzuk harantzago.



Eta bonbardaketa...

Bonbardaketa? Gogoratzen naiz azoka eguna zela. Ez uste ikaragarritzko gauza zenik. Egoera nola-halakoa zen. Beti azaltzen zen baserritarren bat, etxeko animalia ekarri eta besteren batekin trukatzeko zuena, edo saltzeko zuena, edo dena delakoa. Alarma jo zutenean, babeslekura abiatu ginen, korrika. Egun hartan bai, benetan ari ziren, bonbak jausten ari zirela sartu ginen babeslekura. Eta gure ondoan, baserritarrak, plazan zeudenak. Uste dut 600 lagun sartzen ginela babesleku haietan, baina egun hartan mila baino gehiago izango ginen. Esan dut, azoka eguna zen, eta inguruko baserritarrak ere han zebiltzan, saldu-erosian. Nire akorduan, hiru egun egin genituen han zarratuta.

Hiru egun babeslekuan sartuta?

Babeslekuan, bai, baina egun hartan, hilaren 26an, kanpoan zer zen ikustera irten genuen. Eta hura zen, hura, ikustekoa! Dena apurtuta

Nortasun agiria

Jorge Eduardo Elgezabal Martinez (Cienfuegos, Kuba, 1925). Errigoitikoa zuen aita, Kasimiro Elgezabal Apraiz, eta galiziarra ama, Maria Luisa Martinez Vega, Santa Marta Ortigueirakoa. Kuban ezagutu zuten elkar, bertan ezkondu. Hiru seme-alaba izan zituzten, Luisa, Kasimiro eta Jorge Eduardo, bizirik irauten duen bakarra. Galizian ziren 1932an, Kubako egoera politiko makurraren ondorioz, Gerardo Machadoren diktaduratik ihesi. Galiziatik Euskal Herrira etorri ziren atzera Cienfuegosera itzuli baino lehen, Errigoitiko familia ezagutzera. Horrela harrapatu zituen Gernikako bonbardaketak. Sarraskiaren lekuko izan ziren. Aldi hura paperean jarria du Jorge Eduardo Elgezabalek, liburu idatzia, azken ukituen zain.



zegoen. Bizian ez dut halakorik ikusi! Jendea orroka, batzuk negarrez, beste batzuk batak besteari helduta, besarkatuta. Seme-alaben bila, senideen peskizan, gurasoak non ote ziren galdezka, denak orroka... Zer zen hura, bada! Hildakoak ezker-eskuma, adin guztietakoak, animaliak ere hilda, gorputz zatiak han eta hemen, zaurituak gura beste, sua... Oroitzapen horiek dauzkat, ez zen gauza gozoa, 10 urteko mutikoarentzat. Eskerrak ama

Gernika I

"Cienfuegos herriko Soledad azukre-zentralean hasten dut liburua. Hantxe jaio nintzen, hantxe igaro nituen lehenengo urteak, umetakoak. Kubako familia tipikoa ginen, aita-taren gaixotasunagatik Espainiara joan behar izan zena. 30eko hamarkada zen, garai latza. Baina Gernika da nire idazlanaren gai nagusia: hara joan aurreko denbora, bonbardaketa, eta ondoko bizimodua Gernikan, Kubara itzuli ahal izan ginen arte, hori ere ez zen-eta erraza izan".

ondoan neukan. Besarkatuta nindukan, babestu guran. Nire anaia, berriz, egun hartan ez zen lanera joan, eta horregatik irten zen onik, ze bonbek lan egiten zuen inprenta zirtzildu zuten; ez zen inor bizirik atera. Nik ez daukat hura kontatzeko berbarik, han ikusi nuena, han ikusten ari naizena oraintxe bertan... Sekula ere ez dut ahaztuko, detaile txiki-ena ere akorduan daukat eta, behin honez-kerok, ez zait ahaztuko. Batetik bestera ibili nuen Gernika bonbardaketaren ostean, eta dena apurtuta, birrinduta zegoen. Juntetxea, Andra Mari eliza eta arma fabrika baino ez ziren libratu.

10 urteko haurra zinen.

Eta 10 urteko haurraren oroitzapenak gorde ditut, baina amak eta neba-arrebek gehiago zituzten. Zoritxarrez, hilak dira. Gure amak gauza asko kontatzen zituen. Esaten zuen aitaren familia ikustera joan zenean, haiek ez zutela euskaraz baino berba egiten, eta "maketa" esaten ziotela amari, eta berba hori baino ez zuela ulertzen. Ez zitzaien gustatu



"Hildakoak ezker-eskuma, adin guztietakoak, animaliak ere hilda, gorputz zatiak han eta hemen, zaurituak gura beste, sua... Oroitzapen horiek dauzkatzat, ez zen gauza gozoa, 10 urteko mutikoarentzat".

beraien etxeko bat galiziararekin ezkontzea. Baina handik lasterrera etxeko legez maite zutela, maite gintuztela. Azken finean, bihotz oneko jendea zela. Hori zioen gure amak. Hemengo egunkari batean amak kontatuta dakit Asilo Alzada kalean bizi izan ginela, 19. zenbakian. Irakurriko dizut amak hemengo *Juventud Rebelde* egunkariari aspaldi esandakoak: "Gerra hasi baino lehen, jesuitak mugitzen ari zirela ikusi genuen. Urrezko eta zilarezko gauzak batzen hasi ziren, San Inazio Loiolakoarentzat urtzeko, itxura batera, nahiz

Gernika II

"Material fotografikoa eta Gernikako postal bereziki esanguratsuak ipini ditut liburuan. Eta argazkiak ez ezik, baita marrazki asko ere, neuk egindakoak, gogoan daukadana erakusteko asmotan. Haritzaren erretratua ere ipini dut, askatasunaren sinboloa delako eta, hegazkin alemanen bombardaketaren ostean ere zutunik geratu zen arbola. Gernika inguruko jendearen bizimodua ere ekarri dut liburura, haien ohiturak, herri kondairak eta bestelakoak. Kubara itzultzearekin amaitzen dut liburua".

eta benetan Francorentzat urtzen ibili. Baina Eusebio Arronategi abadeak, eta Andre Mari elizako parroko Domingo Iturraranez, kontra egin zieten...". Arrebak ere kontatzen zituen Gernikakoak, aldizkari berean. "Gernika mehatxupean zegoen, herri asko legez. Bost babesleku egiten hasi ei ziren, baina erasoari ekin ziotenean, artean amaitu gabe zeuden. Bakarra ei zen zementuzkoa. Besteak pinu enborrez eginda zeuden. Alemanek bonbak jaurti zituztenean, pinuak su hartu zuen, eta barruan ezkatututa zegoen jendea berton hil zen. Astelehena zen, azoka eguna, esan dudanez, eta etxean geunden alarmak jo zuenean. Aire eraso esan gura zuen horrek. Arkupera joan ginen, hirugarren babeslekua zegoen lekura. Erdiko kalean beste bat ei zegoen Don Tello kalean. Horiek zeharo apurtu zituen atakeak. Barruan zegoen jendea berton hil zen". Arrebak esaten zuen gu joan ginen babeslekua jendez lepo zegoela, 700 lagun baino gehiago, eta ura, oster, orkatilaraino genuela. Kanpoan, harea-zakuak ipini zituztela, harea sikua, eta bonbak lehertzen zirenean, harea babesleku barruraino sartzen zela. Ito ez ginenean! Oxigenorik ez ei zegoen guztiontzat, denak han pilatuta,



AZKEN HITZA

Liburua

"Kubara itzuli ginela kontatzen dut eta hor amaitzen da liburua. Harrezkerokoaz idaztea ez zitzaidan inportantea iruditu. Baina bai, hemen ere banuke zer kontatua... Iraultzaren gaineko kapitulua eransteke esan didate, eta horrek atzeratu du liburua argitaratzea. *Gernika* darama izenburuan, jakina".

Gernika III

"Uste dut belaunaldi berriek jakin egin behar dutela, lehen eskuko lekukotasunen bidez, orduan gertatu zen gauza beldurgarria, gaur egun ere antzekoak gertatzen dira-eta. Horregatik idatzi dut liburua, jendeak jakin dezan gerra inperialistek daukaten esangura genozida, ze Gernikakoa genozidioa izan zen. Jendeak jakin egin behar du, gazteek jakin egin behar dute...".

mordoan. Queipo de Llano jeneralak Gernika dena apurtuko zuela esan zuen, eta gernikarrak ahal zuten moduan prestatu ziren. Bonbardaketa ostean, ez oinetako eta ez beste, mendian barrena Busturia aldera jo genuen, eta harako bidean metrailatu egin gintuzten soldadu frankistek. Han, alpargatak eman zizkiguten, arropa... Dena lohituta geunden, eta beldurra airean! Arrebak kontatzen zuen, eta neu ere gogoratzen naiz zer edo zer.

Oroitzapena beti hortxe omen duzu, ezin alden-du...

Bai. Nahikoa da telebistan Irak, Afganistan edo dena delako lekua azaltzea, Gernikako hura gogora ekartzeko. Behin esan nuen eta halaxe jarri zuen kazetariak gero egunkarian: "Gernika ikusten dut gauero etxeko telebistan". Jendea ikusten dut, handik hona eta hemendik hara lasterka, korrika, eta haien larrian jartzen naiz, nahigabe ere. Idazten ari naizen liburuan ere badiot, alegia, Kubara itzuli eta harrezkeroko hogeit urtean ere gure familia kirioak dantzan bizi izan zela sirena hotsa entzuten zuen bakoitzean, edo kanpaiak joka, edo alarma zarata. Ez da erraza, ez! Asko idatzi da Gernikakoaren gainean...

Zure liburuaren gaia ere bada, izan.

Bai, jakina! Nik esaten dut hura saiakera bat izan zela, kupula alemanak diseinatu zuena. Kondor legioa bidali zuten. Gernika bonbardatu eta jende zibilak zelan erreakzionatzen zuen aztertu gura zuten. Nazien esperimentua izan zen, andre, gizon eta umeen erantzuna ikusteko! Kondor legioak bertatik bertara zuen kanpamentua, Gasteizen. Han zeuzkaten generazio berriko hegazkinak, eta haiek probatu beharra zeukaten, Bigarren Mundu Gerra hasi baino lehen, gerra handi haren atarian. Gernikakoa gerra krimena izan zen, ez dauka beste izenik! Jendeak ez zeukan babesteko modurik. Han edo hemen irakurri dudanez, faxisten jeneral batek esan omen zuen: "Gernikako gazteei bonboiak jaurtiko dizkiegu". Esan egin behar da, gero! Jeneral hori gaixo egon behar zen, horrelakorik esateko. Herbert Matthews amerikar kazetariak "bonbardaketa totalitarioaren" prototipotzat jo zuen Gernikako bonbardaketa, eta Ludger Mees irakaslearen arabera —ezagutuko duzu historialaria, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreordea—, Gernika "nazien armadaren estrategien saiakera-bankua izan zen, haien teknologiena, haien hegazkinena, haien bonbena". Ez dago, orduan, dudarik. Hitlerrek horretarako erabili zuen erasoa, gero erabiliko zuen makineria militar handi hura zelan zebilen ikusteko, gerra prestatzeko. ■



Komunikazio
biziaren
harribitxia

Oparitu  **argia** harpidetza
independentzia astero ikusten da

Urte osoko harpidetza Hego Euskal Herrian 138 € | Ipar Euskal Herrian 168 € | 943 37 15 45 | harpide@argia.com

• Bazen behin... bizitza •

Osasunaz jostatzeko

“Iaz gripea izan nuen. Banago datorren urterako immunizatuta?”. Jakingo duzu ziurrenik galdera horren erantzuna. Baina ea honakoa dakizun: “Egia ala gezurra? Listuak entzimak ditu”. Eta konplikatuxeagoa: “Nola du izena azalaren kanpoaldeko geruzak?”. Erantzunak, gure gorputza hobeto ezagutzeko aukera ematen duen mahai-jolasean aurkituko dituzu: Bazen behin... bizitza.

IZADI AZKONOBETA

Argazkia: Dani Blanco

KIRA gaztearen gorputzean barneratuko dira jokalaria, xede argiarekin: haren gorputzeko bost zatitara (bi besoak, bi hankak eta garuna) oxigenoa eramatea, biriketara sartu nahi duten birusei aurre egin ahal izateko. Denek talde bakarrean jolastu behar dugunez, elkarrekin egin beharko dugu lan eta estrategiak garatu ahal izango ditugu, gorputz atal guztietara iristeko.

Jokalari bakoitza Hemo bat da, eta saskian hiruna oxigeno-burbuila urdin izango ditugu hasieran. Gainontzeko oxigeno-burbuilak biriketan jarriko ditugu eta hauxe izango da gure egiteko nagusietakoa: biriketan burbuila horiek mantentzea eta gorri koloreko birusez ez betetzea, orduan partida amaitu egingo bailitzateke. Izan ere, birusak harrapatuta, Kirak katarroa hartuko luke.

Dadoa bota eta arterietan aurrera egingo dugu, gure saskietako oxigenoa aipatutako gorputz-ataletara eramateko. Bidean, laukiz lauki galderak erantzuten joan beharko dugu. Oxigeno-galderak egokitzen bazaizkigu eta

asmatzen baditugu, oxigeno-burbuila bat lortuko dugu saskirako; erantzun okerra emanez gero aldiz, burbuila bat kenduko zaigu. Birus-galderak badira, adi ibili: zuzen ihardetsiz gero birus bakarra jarriko dugu Kiraren biriketan, baina erantzuna okerra bada, hiru birus izango ditugu. Saiatu ondo erantzuten, ahalik eta burbuila gehien lortzeko eta birusek Kira ez gaixotzeko.

Txartelek bost osasun arlori buruz galde-tuko digute: oxigeno txartelak baldin badira, nerbio-sistemaz, digestio-sistemaz eta zirkulazio-aparatuz dakiguna erakutsi beharko dugu. Birus txartelak egokitzen bazaizkigu aldiz, gaixotasunei eta immunitate-sistemari buruzko galderak erantzun beharko ditugu.

Oker gehiegi egin dituzuela eta galtzen zoaztela? Lasai, oraindik Kirari laguntzeko aukera daukazue, baldin eta immunitate-sistema txartelak ondo erantzuten badituzue: birusak kentzen eta oxigenoa berreskuratzen joan ahalko zarete. Berriz ere hasi gara irabazten, ongi zaintzen ari gara Kira.

Gainera, norberaren jakintza mailaren arabera jolastu daiteke, galderak lau kategoriatan banatuta baitaude eta jokalaria bakoitzak partida hasieran erabakiko du zein mailatan jolastu nahi duen: Hasiberriak (txikienentzat), Jarraitzaileak (zerbait gehiago dakitenentzat), Adituak (gaian jantziak daudenei zuzenduak) eta Profesionalak (galdera zailenak). Guztira, 2.200 itaun, dibertitu bitartean osasunaz ikasteko.

Irabazi ala galdu, inork ez du bakarrik egingo, taldean jostatuko baikara. Mahai-jolas kooperatiboa da, familian aritzeko pentsatua, eta gehiago dakitenek gainontzekoei laguntzea da asmoa, lankidetzan. Hala, partidaren amaieran jokalaria guztiek elkarrekin galdu edo irabaziko dute; lortuko dute hanka, beso

EZAUGARRIAK

Bazen behin... bizitza

Adina: 6 urtetik gora.

Edukia: 2.200 galdera-erantzun, table-
roa, dadoa, fitxak eta lepo-saskiak.

Prezioa: 39 euro. Harpidedunek 35 euro.

Eskaerak:

☎ 943 36 86 61
info@luditoys.com



eta burmuinera oxigenoa eramatea, edota katarroa harrapatuko du Kirak. Azken finean, guztiok gaixotasunaren kontra borrokatzen ikasteko bidea ere bada Bazen behin... bizitza.

Marrazki bizidunak jolas bihurturik

Bere garaian, marrazki bizidun arrakastatsuak izan ziren mahai-jolaseko protagonistak: *Bazen behin... bizitza* telesailean, zauri bat egiterakoan edota gaixotzerakoan gure gorputzak nola erreakzionatzen zuen esplikatzen zitzairen etxeko txikienei —eta bide batez, baita heldu askori ere—. Marrazki hauek munduko hainbat herrialdetara zabaldu

Jokariok talde bakarra osatzen dugunez, denok galdu edo irabazten dugu. Gainera, galderak lau mailatan banatuta daude: Hasiberriak, Jarraitzaileak, Adituak eta Profesionalak

dira mahai-jolas bihurturik, hizkuntza ugari-tan: frantsesa, gaztelania, alemana, ingelesa, katalana... Luditoys enpresak hutsunea ikusi zuen hor, eta baita abagunea ere, euskaraz jolas hezitzailea eta dibertigarria kaleratzeko. Ohiko legez, hizkuntzak garrantzi berezia izan du Luditoysen azken jolasean, eta horregatik mediku talde baten laguntzarekin egin zen itzulpena, osasunaren inguruko kontzeptuak euskara egokian egon daitezen.

Segi biriketara, lortu zure oxigeno-burbuilak eta ekin jolasari, Kira osasuntsu mantentzeko! ■



Galdakao

Abenduaren 17tik 23ra, Mugurun

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

TTAKUN (H)ERRENKA

Egia mozorrotuak

DANI BLANCO

Baditut lagun idazleak eta baditut lagun poetak. Eta baditut idazle eta poeta direla aitortzen duten lagunak ere. Eta oro har, gauza batek bultzatzen ditu idaztera: plazerak dutelako hartzen, zerbait dutelako esateko, komunikatu beharra sentitzen dutelako, beren ibilbidean edo bizipenetan urrats bat gehiago eman dutela ulertzen dutelako, eta forma zehatz baten bila dabiltzalako. Labur laburrean, hauexek lirarteke, kafe baten estakurupetan edo mikrofonoaren aurrean entzun izan dizkiedan arrazoiak. Baina, sakon sakonean, bizipena dago. Esperientzia. Eta errealitatea; bat izanik ere, egitate edo ez egitate horretaz bakoitzak jaso eta interpretatu duena. Nork berea. Bizipen hori transmititzeko modua, era eta forma dira, ondotik, idazleak zein poetak egiten duen aukera —abilezia handiagoz edo txikiagoz—.

Poetak, oro har, Beñatek dioen bezala, formari edo edertasunari areago diola begiratzen esan liteke. Ia-ia gezurra esateraino edo, bederen, egia mozorrotu aldera. Baina ez dut uste helburu gorena denik. Esan nahi dut, aldaketa nabarmentzen hasia dela literaturan eta poetek ere, poesiak ere, edertasuna biluzteraz iritsi aurretik, beren buruak eta bihotzak biluzteko joera hartu dutela. Irakurleak, bestalde, ikeragarri eskertzen duenarik.

Beste era batera esanda, hezur eta mamizkoago agertzen dituztela euren buruak poetek; eta, ondorioz, hurbilagoak egiten direla.

Aldea dagoen arren, idazleen eta poeten arteko tartea nabarragoa dela, nahiz eta poetek esaten dutenaren arabera, generoa aukeratzekoan, aldea, “hor dagoen”.



Ana Urkiza

Padrón

Sarasola

Durangoko Azokaren hondar egunotan, urtean zehar aurkeztutako liburu hainbaten idazle eta poetaren hitzetan “mina izan dut gidari”, “sufrimenduari egin diot kantu” edo “sufrimendua gainditzeko” idatzitako liburuak —eta poesia liburuak— aurkitu ditugu. Eta sufrimendu hori agertzearekin obra ederragotu edota “estiloa sendotu” egin dutela dioten kritikak baita. Sufrimendua, izan ere, beti izan baita literaturarentzat iturri asegaitza eta idazle eta poetentzat sormen habia.

Hala ere, bereizi beharrekoak dira edertasuna eta mezua, forma eta edukia. Badirudi edertasuna helburu duenak mezua mozorrotzeko joera behar duela. Edota edertasuna lehenesten duenak mezuari trufa egiten diola. Eta garai batean hala izan baldin bada ere, arrazoi nagusien artean, zuzenean aritzeko modurik edo askatasun gutxienez egin gabe, gero eta idazle eta baita poeta gehiago ditugu, zorionez, edertasunari muzin egin gabe, noski, eta aurkikuntza hori helburu izanik ere, mezuari era zuzenagoan ekiten diotenak. Eta euskal literaturan ere badugu horren adibiderik.

Kontua da, orain, era zuzenagoan jorratu beharreko gaiek erraz harrapatzekoak edo ahalegin intelektual handiagoa eskatuko dutenak izan behar duten. Nik uste, maitasuna (bat aipatzeagatik) sekula ez dela adimen intelektual berezia eskatzen duen gaia izan eta formaz, beharbada, gehien mozorrotutakoa izan dela. Hau da, gezurrik ederrenak eta egirik txikienak, segur aski, gai horren inguruan idatzi direla.

Mina ederra da eta beharrezkoa “egia bihurtzea”, bai literaturarentzat, bai poetarentzat. Irakurlea, ahaztu gabe doa. ■

Poetak, oro har, Beñatek dioen bezala,
formari edo edertasunari areago diola begiratzen
esan liteke. Ia-ia gezurra esateraino edo,
bederen, egia mozorrotu aldera.
Baina ez dut uste helburu
gorena denik

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Intolerantziaren kiratsa

Aurtengo udako oporretan Bavarian zehar ibili nintzen senide batzuekin, hango paisaiatz eta gazteluez gozatzen. Egun batean, Municheko tranbian gindoazela, argazki bat atera genuen, gaztelaniaz berbetan genbiltzalarik. Bidaia batek ikusi —eta entzun— eta, berehala, komentarioa egin zigun: “*En España no tenemos tranvías*”. Gu elkarri begira gelditu ginen segundo batzuetan, zer esan jakin barik. Izan ere, ez genuen desatseginak izan nahi atseginenez hitz egin zigun andrearekin; baina, era berean, ez geunden oso prest espainoltzat hartuak izateko. Andreak, nonbait, gure duda-mudak nabaritu, eta: “*¿Porque sois españoles, verdad?*” Horren galdera zuzenaren aurrean ihesbiderik ez: “*No; somos vascos*”. Ordura arte mai-tagarria ematen zuen andrea, bat-batean munstro gorrotagarri bilakatu eta “*pues entonces hablad en vuestro idioma y no en el nuestro*” aurpegiratu zigun ia bere onetik at.

Irakurketa bat baino gehiago izan dezake gertatuak. Baten iritziz, beharbada, ondo merezia genuen euskara ez erabiltzeagatik. Besteren batek, agian, esango luke ez duela merezi “abertzalekerietan” aritzea munduan barna ibiltzean...

Iritziak iritzi, nik bakarrik dakit bat-batean hasi nintzela ulertzen zergatik azken urteotan, Sabino Aranaren garaitik ez bezala, ugarituz



IÑIGO AZKONA



Neskok ez zekiten Bilbon
‘izaera intimozko
adierazpenak oro’ debekatzen
dituen ordenantza onartu
berri dutela PNVk eta EBk



joan diren euskal prentsan espainiarrez gaizki esaka idazten dutenak. Egia esan, ez zaizkit inoiz gustatu horrelako artikulak, beti pentsatu izan baitut, besteak beste, *Cocidito Madrileño* entzuten genituen edota hemerroteketan irakurtzen ditugun Madrilgo prentsako zutabegile eta tertuliano latsagabe horien parean jartzea zela, baina...

Aurreko batean, azaroak 12, bi neska gaztek musu busti bat eman zioten elkarri agurtzeko, Bilboko San Nikolas plazako metro-sarreran, gaueko 10:50ean. Ondotik pasa ziren udaltzain batzuek esan zieten, oso mehatxuzko tonuan, hori debekatuta zegoela, abisua baino ez zela, baina hurrengoan ondorio larriak jasango zituztela. Neskak zur eta lur geratu ziren, ulertu eta sinestu ezinik. Haiek entzunda zeukaten ezagutu ez zuten frankismo garaian gertatzen zirela holakoak; gaur egun, ordea, non eta Bilbon, horren hiri europar eta modernoan!? Neskok ez zekiten, alabaina, Bilbon “izaera intimozko adierazpenak oro” debekatzen dituen ordenantza onartu berri dutela PNVk eta EBk.

Kontatu dizkizuedan bi jazoerok, berez, ezer gutxi daukate komunean. Agerian, behintzat. Nire subkontzienteak, ordea, sail berean kokatu ditu. Zerbaitegatik izango da. Agian intolerantziaren kiratsa darielako biei? ■

TXANDAN

Edu Zelajeta



Dagoeneko pentsatua dut Olentzero-rentzako eskaera:

Science in Basque, izan ere, 2011 urtea urratzeaz dugun honetan, EHUKo irakasle eta ikertzaile frankorentzat zientzia euskaraz egitea oraindik oztopoz jositako bidea ibiltzea da.

Aurreko ikuspegiak azalduko luke, besteak beste, berriki EHUKo jardunaldi batzuetan jazotakoa: didaktika jorratzen duten ikerlerro zenbait aurkezteko asmoz, euskarazko komunikazio bakarra ageri zen programan, beste dozena eta erdi gaztelaniazkoren ondoren. Aitzitik, jardunaldietan erdaraz aritutako hizlari

Science in Basque

askok euskaraz (ere) egiten dute lan. Ildo beretik, bertako entzule gehienak euskaldunak ziren.

Euskarazko komunikazioa eguneko azkena izan zen. Solasean jarri orduko, atzerriko neska bat oihuka hasi zitzaidan, ni *me hablasen unalenguage* ari ez nintzelako. Neskak eta beste zenbaitzuek hanka egin ondotik, lanari ekin nion. Amaitutakoan, asmo oneko txalo epel bat eskaini zidaten han geratu ziren lagunak. Euskaldunok txalo epel bat euskarazko zientziari.

Gogoeta: irakurri duzue hemen egoera hori —errespetu falta— EHUn gerta zedin faktorerik? ■

Alaitz Vives

KAZETARIA

Periferiara

Badira periferian bizi direnak; hirien periferian, munduaren periferiatan, bizitzarenetan, mugetan bizi direnak. Eta jakin badakigu, erdigunean hain ondo bizi garenok ere posible dugula harako bidea egitea. Periferiara, sistemaren ertzetara joan gaitzek, bidal gaitzakete. Begira duzun horrek bidal zaitzake, periferiara.

Begira ditugun begiei begira osatzen omen dugu gure gua, zure *zua*, nire *nia*. Begirada abegitsuak, lagunaren begiradak, begirada galduak,itsuak eta begiratzen gaituzten arren ikusten ez gaituztenak. Hortaz pentsatzen ari zarela, behin hor nonbait, autopista ertzeko iragarki erraldoietan letra larriz irakurritakoaz akordatu zara. Badirela periferian bizi direnak; hirien periferian, bizitzaren periferian, munduaren periferiatan, mugetan. Eta horrelaxe ikusi zaitu berak, begiratzen zaituen horrek: periferiako.

– Erdiguneak ezin omen ditu ertzeakoak maite– gogorarazi dizu lagun batek, telefonoa belarran, kotxeko giltza eskuan eta alaba besoe-tan daramazun artean.

– Baina ertzeakoak behar ditu, halabeharrez–erantzun diozu. Eta halaxe hasi duzu zentrotik periferiara doan bidea. Bidaia txartelik zenuenik ere ez zenekienean, ezustean.



DANI BLANCO



Zentrotik zenbat eta urrunago,
are eta txikiagoa erdiguneak
eragiten duen indarra,
txikiagoa da erdigunearen
boterea



Burua leihoko kristalean ipinita, parkeek berdeak dirudite, eta urdin dago zerua, eta ez dakizu ze egunkaritan irakurritakoaz akordatu zara: andrazkook omen dugun halako beirazko sabaiaz, eta emakume-amalangle hitz kate inposibleaz.

Begira dituzun begiek ez dute horrelako hiritarrik nahi haien hiriburuan. Kartzelak lepo daude, manifak modaz pasata, erretzea debekatuta, periodikoak inprimatzeko papera amaitu egin zen, eta merkea da periferiarako noranzko bakarreko errepideak eraikitzea.

– Emakumea, “joko-arauak ezagutu eta onartzen ditut” laukitxoa markatuko zenuen ala?– galdetu dizu lagunak larrituta. Baina zuk ez duzu horrelakorik gogoratzen. Ez zenekien horiek jokoaren arauak zirenik.

Zorionez, supermerkatu batek postontzian utzitako katalogoan irakurritakoaz akordatu zara: zentrotik zenbat eta urrunago, are eta txikiagoa erdiguneak eragiten duen indarra, txi-

kiagoa da erdigunearen boterea.

Horretaz akordatuta irribarre egin duzu, haraxe zoaz eta hantxe ikusi dituzu garai bateko kantari ezagunak, periodikoetako “plumilak”, Patxi errementaria, eta Mafalda dator hamaiketako manifaren pankarta-buruan, eta haraxe zoaz jendartera, zapata gorriak oinetan, txorizo bokadi-loa eskuetan, libre, libre, periferian. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Poliki ikusi nuen orain pare bat urte-edo, Hernaniko kalean erosketak egiten, poltsa eskuan. Zirkunstantziek bortxatuta, urte andana pasatua zen elkar ikusi gabe. Donostiako Getaria kaleko Iberdueroko bulegoan eza-gutu nuen lantokirako zereginetan zebilela, geroago urnietartuko zen oiartzuarra, jada kantatzen hasia “Euskal Herri nerea ezin zaitut maite, baina non biziko naiz zugandik aparte?”. Ahots katarrosoko bizardun hark, bazuen besteok ez genuen zerbait berezia, Benito baten dotoreziaz parekatzen zuen hura, entzutean agresibitate trumoisu sarkorraz egonezina sor-

Makurka ta

tzen zizuna. “Anaiei aurpegian begirada hotza, bihotz berotasuna izaten da motza”. Silaba nota, nota silaba, esaldia konpas, konpasa esaldi, bertso eta koplak, ofizioa ulertuz kantatuak eraikitzen bizia gozatu zuenak utzi digu testametu gaitza, euskaraz kantatzeko didaktikan oinarritzkoa bilaka daitekeena. “Balio al du gure egiak?”. Horren ondotik borrokatu gara, kantuz ere, arma eraginkorra dela jakitunak eta herriaren arrakasta xede. Asmatu ez izanaren egiak bizi nau. Balio izan du hala ere. “Nahiko hunan Beatriz, Chile libre batean, adiskide artean...” bezalako piezak sortzeko ez dira aski ofizioa eta talentua. Anaiei begirada epela ere beharko zen. ■

BERTSO BERRIAK

Jexux Mari Irazu

Xabier Lete zenari jarriak

DANI BLANCO



I

Bertsolarien zoritxarreko
ahotsa galtzea
Loak sendatu ezingo duen
zure itzaltzea.
Zauden tokian nahi nuke
lore sorta hau hartzea
atrebentzia ez bada zuri
sei bertso jartzea.

II

Txirrita zaharra piztu zenuen
gure gozagarri
zure ahotsa, sentimendua
ta magia jarri.
Etxahun, Bilintx, Xenpelar...
gure garaira ekarri...
Enbor beretik sortuko ziren
adasken euskarri.

III

Gero habanera hartu genizun
lotsa gutxirekin
bertso momentu solemneenak
jantziaz berekin.
Haizea dator... ta dabil
zure soken dantzarekin
gaurko bertsoak zor galanta du
Xabier zurekin.

IV

Xalbador ere ez da egongo
zurekin ahaztuta.
Orain zerorri oroitzapen den
geroan ezkuta.
Itsasontzia badoa
olatueri musuka
ongi-etorria zeinek egina
izango duzu-ta.

V

Poesia ta pentsamendua,
kantua zutabe
langile baten semea eta
bertsoaren labe.
Utzi diguzunaren ta
daramazunaren jabe
... seguruenik merezitako
aitortzarik gabe.

VI

Agur Xabier ez zaitut gehio
endredatzerik nahi
eskerrik asko, segi kantari
eta guk ere bai.
Zugan beti izango da
izarren hautsa bizigai
izotz ondoko egunsentia
izango duzu zai.


DOINUA: "Langile baten semea".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Xabier Lete

“
Ez naiz inoiz
iraultzailea
izan”



IKOR KOTX / ARGAZKI PRESS

Osasun arazoez atsedean pixka bat eman zioten denboraldi batean eginga da elkarrizketa hau Xabier Leterekin, 2006ko uztailan. Zenbait galdera *Abestitzak eta poema kantatuak* (Elkar) liburuan inprimatu baziren ere, ez da sekula osorik irakurlearen eskuetara iritsi. Bere erantzun sakonekin, bizitzari nolako begiz so egiten zion azaltzen saiatu zen. Hil berri den honetan, Xabier Lete nor izan zen hobeto ulertzen lagunduko duen testigantza da elkarrizketa hau.

LANDER ARBELAITZ

*Ni naiz
Erreka zikinen iturri garbiak
Aurkitu nahi dituen poeta trixtea*

Nor da Xabier Lete eta nola iritsi da horra?

Lagunentzako eta jolaserako ona nintzen pertsona bezala oroitzen dut nire burua umetan. Hala ere, 16 urtetik aurrera, bere buruari galderak egiten zizkion tipo bakarti eta melankolikoa bihurtzen hasi nintzen. Gero, irakurtzeari ekin nio-

nean, areagotu egin ziren galdera horiek eta horrekin, bakarrik ibiltze hori. Garai haietan, Oiartzunen talde lanetan ibiltzen nintzen, Larraun antzerki taldean adibidez.

Tarragonako unibertsitate laboralera joan zinen peritajea ikastera, aitaren ametsa betetzera. Nola amaitu duzu poeta?

Batxilergoa ikasten ari nintzela literaturara eta filosofiara oso emandako irakasle bat nuen eta

hark sartu zidan zaletasuna. Buruan sartu zitzaidan letrak ikasi behar nituela, eta ahal bazen, filosofia. Euskal Herrian Deustuko unibertsitatea bakarrik zegoen, baina garestia izateaz gain, Bilbon zen. Ez zegoen gaur egungo erraztasunik ikasketak egiteko, eta bekak lortzea zaila zen. Nire aita peritu aritzen zen lanean Pasaian, fundizioa moldatzailea zen. Berak ikaragarritzko ilusioa zuen nik ikasketa teknikoren bat egiteko, eta orduan, bide bakarra Tarragonako Unibertsitate Laboralera joatea izan zen. Beka bat eskatu eta hara joan nintzen. Peritaje ikasketen lehen hiru urteak nolabait eraman nituen, eta tira! Gero espezialitatea aukeratu behar izan genuen eta nik mekanika aukeratu nuen. Oker bat izan zen. Beharbada, beste zerbaite aukeratu izan banu, agian zer edo zer egingo nuen. Kontua da oso nota txarrak ateratzen hasi nintzela eta etxera etorri nintzela. Aita asko tristatu zen. Etxean haserreak ere izan genituen. Lan bat aurkitu nuen Pasaian. Nire kabuz irakurtzen hasi nintzen, antzerkia ikusten, zinemara etortzen, idazten. *Zeruko Argian* kolaboratzen hasi nintzen, eta gero, poesia idazten.

Eta zerk eraman zintuen kantura?

Nire emazte zen Lurdesek. Egia esan nik ez nuen kantatzeko ez susmo, ezta asmorik ere. Niri umetan, koroan sartzeko proba batzuk egitera joan ginenean, Oiartzungo organista Don Pablo Irigoienek esan zidan ahotsa oso zakarra neukala, eta ez ninduten hartu. Aurre istorio horrekin, kantua bidea itxia izan dut beti.

Dena den, Oiartzunen nengoela, antzerkia, *Zeruko Argian* eta poesia idazten nenbilela medio, kanta berrien mugimendua ezagutu nuen. Lurdes, Lertxundi... Julen Lekuonak jarri ninduen kontaktuan Ez Dok Amairuko kantariak izango zirenekin. Horiek 1965 urtean hasi ziren. Nik 21 urte nituela bilerak egiten hasi ziren, mugimendu bat taxutu zezaketen ikusten ari ziren. Ea bilere-tara joango nintzen esan zidaten eta artistentzat hitzak idaztea izan zen hasieran nire lana. Lurdesek beti zirikatzen ninduen, ea zergatik ez nuen kantatzen. Gitarra jotzen ikasten hasia nintzen eta zerbaite prestatu nuen, baina jotzeko inolako asmorik gabe. Kontua da, 1966ko martxoaren

26an, Segurako kantaldian Lekuona, Lurdes eta Lertxundik kantatu behar zutela eta Lertxundi gaixotu egin zela. Ea zergatik ez nuen kantatzen galdetu zidaten eta han atera nintzen lehen aldiz. *Poeta Horiek* eta *Lore Gorrien Balada* kantatu nituen, baita Uztapideren eta Xalbadorren bertso batzuk ere. Hor hasi zen dena. Gero soldaduskara joan behar izan nuen, baina itzuleran, kantaldietan parte hartzen hasi nintzen.

Zer da zuretzat poesia?

Esan ezin dena nolabait esaten saiatzea. Poesia idazterakoan, gutxitan esaten diozu zeure buruari “halako gai hartaz idatziko dut”. Barruan dar-matzazun eta zehaztea askotan zaila den senti-mendu, hunkidura eta minak hitz batzuetara eramatea da, batez ere, poesia. Niretzat hori oso zaila da; lortzen baduzu, eta ateratzen bada, oso ederra. Askotan esan izan didate, “poema hartan zer esan nahi huen?”, eta nik ez dut jakin izan azaltzen. Nik bakarrik dakit zer esan nuen eta batzuetan zer esan nahi nuen azal dezakedan arren, beste batzuetan ezin dut.

Zure poesiak eboluzio luzea izan du...

Hasieran, gaztetan, poesia garratz xamarra idazten nuen, ironikoa... modu kritiko eta sarkastikoan. Gizarte gaiez idazten nuen, nire inguruko gizarteaz. *Egunetik egunera, orduen gurpilean* nire lehenbiziko liburuan, lehen atala egunerokotasunari eginiko kritika zen. Familietako bizimoduaren tristurak, Elizara bere burua asko emandako pertsona batzuen jokaerak...

Gero aldatzen hasi nintzen eta *Bigarren poema liburuan*, poema surrealista goak zeuden. Ez ziren hain zehatzak. Fantasiarekin eta nire barnean neramatzan irudi ero batzuekin jolasten hasi nintzen.

Urrats Desbideratua hirugarren liburutik aurrera, poesia kontzeptualagoa idazten hasi nintzen. Pentsamenduak, gogoetak, urradurak... Nire poesian badaude amestutako lurraldeak eta amestutako kostaldeak. Egingo ez dituzun bidaiak. Ihesaren ideia, beharra, hori dena manifestatzen hasi nintzen.

Eta azkeneko bi liburuetako poesia, *Bizia-aren ikurrak* eta *Zentzu antzaldatuaren poemategia* liburue-

“Umetan, koroan sartzeko proba batzuk egitera joan ginenean, Oiartzungo organista Don Pablo Irigoienek esan zidan ahotsa oso zakarra neukala, eta ez ninduten hartu. Aurre istorio horrekin, kantua bidea itxia izan dut beti”

“Tipo zuzena izan nahi nuen, eta ez nintzen hain tipo zuzena izan beti. Leialtasunez jokatu nahi izan nuen maite nituenekin, eta ez nintzen leiala izan”

takoa, barnekoia eta espiritualagoa zela uste dut. Bizitzaren sufrimendutik sortutakoa. Poesia filosofikoagoa. Poesia hertsia edo hermetikoa esaten dena. Kulparen kontzientzia ere asko islatzen dut, nik asko izan dudana sentsazioa.

Kulparen kontzientzia, sufrimendua, malenkonioa, tristura... Inoiz entzun izan dizugu zuen belaunaldi-koak tristeak izan zinetela gaztetan. Pertsona ezkorra al zara?

Dena ukatzen duena da ezkorra. Esperantzari bideak ixten dizkiona. Nik ez dut uste baikortasunari bideak guztiz itxi dizkiodanik. Esperantza behar dut, etsiperatuta bizitzea ez baitut eramaten. Aitortzen dut, bai, ni pesimista izan naizela oso gaztetatik. Halakoa naiz nire bizitzan bizitu ditudan pasarte batzuetan nik nahi nukeen mailan egon ez nintzelako. Tipo zuzena izan nahi nuen, eta ez nintzen hain tipo zuzena izan beti. Leialtasunez jokatu nahi izan nuen maite nituekin, eta ez nintzen leiala izan.

Gero, gizartean zenbat hutsune zeuden ikusten hasi nintzen, zenbat porrot eta kontraesan. Horrek egin ninduen pesimista. Nik bizitza honetan oso gauza politak ikusi ditut, bizitu ditut, jaso ditut, ontasun asko, kariñoa... Irakaspen oso onak. Baina gero *koletilla* ikusten duzu, joera badagoela, gauza onak ere txarrera joateko; usteltzeko.

Pesimismo horren talaiatik ikusten al duzu giza-kia?

Pesimismo ontologikoa dei genezakeena, kontzepzio hori, badut. Gizakia pertsona eroria da. Katolizismoan, bekatu originalaren ideia hori hor dago. Bekatu originalaren zama hori San Agustinek asko azpimarratu zuen; baina donatistak eta beste zenbait kristau ideia horren aurka zeuden; bidegabekeriatzat zeukaten ideia hori. Baina, paradisua galtzearen ondorioz datorren erru originalaren arazoa bazterrera utzirik ere, gizakia izaki eroria dela pentsatzen dut, iluna, urratua, arriskutsua. Berdin izan daiteke goxo, leial, zuzena, graziaz jantzia, edo krudela, zakarra, faltsua, gogorra. Eta iluntasun hori, sortzezko iluntasuna, norberaren barnean dago. Horregatik, betidanik pesimista izan naiz. Halako

hondo ilun bat izan dudala aitortzen dut, eta beti hor dagoela.

Izan al da Lete sekula iraultzaile?

Ez. Gure garaian iraultzaile hitzak, niri batere gustatzen ez zitzaizkidan konnotazio jakin batzuk zituen. Eta gainera, niri iraultzak ez zaizkit gehiegi gustatzen. Egitura bat ipurdiz gora jartzea da iraultza, modu bortitzean. Horrela ulertu ditugu iraultzak. Ni ez naiz iraultzailea izan ez tenperamentuz, ezta arrazoi etikoengatik ere. Gainera, uste izan dut askotan onura baino kalte gehiago ekarri izan dutela, iraultzek agerian uzten dituztelako pertsonak daramatzen alde txar asko. Bortizkeria, gogorkeria...

Ez al zuen ba Ez Dok Amairuk nolabait hankaz gora jarri ordura arteko kultura ikusteko modua?

Gu kantariak ginen, sena poetiko eta artistikoa genuen eta horri bide ematen genion. Konturatu ginen euskal kultura sustatu, garatu eta ekoizpen bat lortu behar genuela. Nolabait, guk jaso genuen abestigintza modernizatu. Batzuk kantuan hasi ginen, beste batzuk poesia idazten, beste batzuk antzerkian, beste batzuk ikastoletako mugimenduan... ez nuen mugimendu iraultzaile bezala ikusten.

Eta erresistentzia gisara?

Ezta erresistentzia bezala ere. Batzuek zioten gu “Francoren aurkako erresistentziaren zutabe bat” ginela eta hori ez zait sekula gustatu izan. Egiten genuen lan horrek alderdi hori ere bazuela badakit, eta jendea horregatik ere etortzen zela. Politika giroan benetan bizitu ezin zena, eta esan gabe zeuden kezka eta arazo asko manifestatzen ziren kontzertuetan. Halere, ez dut uste horrek bestea jaten zuenik eta ez dut uste ona denik bakarrik alde horretatik ikustea. Laboa eta Lertxundi, adibidez, urteek eta lanak erakutsi dute artistak zirela, zer esana bazuen jende ona.

Sormena zegoen beraz.


Sormen poetikorik egon izan ez balitz frankismo garaian ez zen sortuko ez kanta ez poesia berri-rik. Sormen horri garrantzi handia eman

“Gizartean zenbat hutsune zeuden ikusten hasi nintzen, zenbat porrot eta kontraesan. Horrek egin ninduen pesimista”

“Niri iraultzak ez zaizkit gehiegi gustatzen. Egitura bat ipurdiz gora jartzea da iraultza, modu bortitz batean

”

zitzaion, eta beste ikuspegi batetik jendea hasi zen gauzak egiten, literaturaren eta artearen autonomia batekin. Bernardo Atxagak ez dut uste *Etiopia* diktaduraren aurkako erreakzio gisa idatzi zuenik.



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Zeruko Argia, Muga eta Garaia aldizkarietan ibili zinen urte luzez. Dena den, zuk ez duzu gustuko elkarrizketatua izatea...

Hori egia da. Kazetari denek ez duzue lan bera egiten, eta batzuen lana elkarrizketak lortu eta egitea da. Berdin du zientzialari, politikari, artista edo futbolariari. Kontua elkarrizketak egitea da eta hor zenbaitek elkarrizketa genero erraz bezala hartu duela iruditzen zait.

Horrez gain, elkarrizketak ez zaizkit gustatzen, kazetariengatik baino, nire buruagatik. Oso mesfidatia naiz, desorekatu egiten bainaiz. Badakit gauzak esaten ditudala behar ez diren bezala. Motz geratzen naizela batzuetan, beste batzuetan pasa... Horregatik ez zait gustatu izan elkarrizketak ematea, eta are gehiago azken urte hauetan. Baina beno, ikusten duzu, batzuetan ematen ditut.

Duela urte asko, elkarrizketa batean, gogor zenioen zure erreferentzia guztiak euskaraz daudela eta zure komunitatearen hizkuntza uztea ez zitzaizula egoki iruditzen.

Euskalduna naiz sortzez eta nire inguruan dena euskaraz izan da. Alde horretatik euskaltasunaren sustraia hori ditut. Gero, nire euskaltasun hori urteetan landu egin dut, irakurketarekin, solasarekin... badut ezagutza esateko ni euskalduna naizela.

Dena den, esango nizuke, ni euskalduna naizela batez ere. Gauza batzuk idaztea eta esatea asko kostatzen zait euskaraz ez bada. Nire buruari ezin diot esan euskalduna bakarrik naizenik, gaztelania-eta niretzat txinera bezain urrunak direnik. Hori ez da egia. Euskara nire hizkuntza da, eta gaztelania ere bai. Eskola guztia gaztelaniaz egin dut, zorionez edo zoritxarrez, irakurri ditudan idazle asko eta asko —ez bakarrik espainiarrak, kanpokoak ere bai— gaztelaniaz izan dira, edo frantsesez zerbait. Azkenaldi honetan katalanez ere ari naiz irakurtzen. Irakurri izan dut italieraz ere bai. Beste hizkuntzarik ez dakit.

Euskararen kokatzen naiz lehenik, baina beste hizkuntza batzuekin batera. Esaldi bat askotan errepikatzen dut eta topiko bihurtzen ari zait. Koldo Mitxelenak behin esan omen zuen, gazte-

“

Elkarrizketak ez zaizkit gustatzen, kazetariengatik baino, nire buruagatik. Badakit gauzak esaten ditudala behar ez diren bezala. Motz geratzen naizela batzuetan, beste batzuetan pasa...”

“Kantari batek zenbat kanta egin behar ditu? 60, 70, 80? Hortik gorakoak soberan daudela esango nuke. Nahikoa da sei, zazpi edo zortzi diskorekin”

lania ere hemengo hizkuntza dela, eta nire ustez ongi egia da. Iparraldeko batek frantsesarekin esan zezakeen bezala.

Euskal kantaldien eboluzio nabarmena bizitu duen belaunaldikoa zara...

Hasi ginenetik duela 20 urte ingurura gertatu zen aldaketarik handiena. Alde batetik, orduan, euskal kanta hasi zenean, oso baliabide eskasekin jokatzen genuen. Musika laguntzarik gabe, aberastasan gutxirekin, hornidura aldetik, janzte aldetik... Ni gogoratzen naiz nola aritzen ginen gure gitarxoarekin, Ez Dok Amairuren garaian. Gero, Lurdes eta biok, aspertu egin ginen arte. Azkenean lortu genuen Antton Valverdek pianoarekin laguntzea, eta orduan arnasa hartu genuen.

Nik uste dut batez ere formalki eta baliabideen aldetik aldatu dela egoera. Egun gauza ezberdinak egiten dira, eta badago jende trebea musikan. Orain gauzak ongi egiten dira eta hori da aldaketarik handiena.

Zer esango zenidake zure obra guztiari buruz orokorrean galdetuko banizu?

Nik gutxi kaleratu dudala. Poesia liburuak bost [*Abestitzak eta poema kantatuak* (2006) eta *Egun-sentiaren esku izoztuak* (2008) liburuak elkarrizketa egin ondoren argitaratu zituen] eta nire kantekin bospasei disko. Gero bertsolaritzari buruzko disko batzuk, eta azkenik, Antton Valverderekin bikoitz bat. Long Play delakoak dira nire bost disko horiek, baina lehenago bazeuden txikiak, lau kantakoak. Horietatik disko handietara gutxi eraman nituen, *Lore Gorrien Balada* eta abar.

Ez naiz ekoizpen handiko poeta izan ezta kantaria ere, baina ez diot garrantzirik ematen horri. Batzuetan pentsatzen jartzen naiz eta nire buruari galdetzen diot: Kantari batek zenbat kanta egin behar ditu? 60, 70, 80? Hortik gorakoa soberan daudela esango nuke. Nahikoa da, sei, zazpi edo zortzi diskorekin. Jacques Brelek hamar edo hamaika disko egin zituen. Ni alferragoa naiz.

Dena den, uste dut, ekoizpen handiegia ere ez dela ona. Lehengoan irakurri nuen, ez dakit egia edo gezurra den, baina Bob Dylanek bostehun kanta inguru eginak dituela [450 bere webgunea-

ren arabera]. Ez da posible pertsona batek barruan 500 kanta egiteko materialik izatea. 500ekin esan nahi duzuna 50ekin esan zenezake. Eta ez baduzu esan, ez duzu esango.

Poema liburu eta diskoek gain, bertsolaritzaren antologia egin zenuen. Nolatan?

Beti gustatu izan zait bertsolaritza, nahiz eta ez den nire lehenengo generoa. Herriko festetan, meza nagusia entzun ondoren, bertsoak entzutea izaten zen festa guztietako momenturik nagusia. Orduko bertsolaririk onenak etortzen ziren Oiartzuna: Uztapide, Basarri, Xalbador, Mattin... baita gero gazteagoak ere...

Kantaldietan beti abestu izan ditut bertsoak. Hala ere, Oiartzunen behin, kontzertuaren bigarren zati osoa egin nuen bertso zaharrekina eta orduan, Joxerra Garziarekin hasitako kontu batetik, ETBkoei bururatu zitzaizen bi programa egin behar zituztela, *Kantuz Biz* izenarekin, euskal kanten historiari buruz. Imanol Larzabal zen aurkezlea, eta gero bertso zaharrei buruzko antologia egin genuen. Gero Elkarrekoek disko-etara eraman zuten.

Urteak zeneramatzen Lurdesek eta zuk gaixo. Zer erakutsi dizu bizitzaren alde eriak?

Dena erakutsi dit. Gizatasunaren eskolarik sakonenetakoa, gaixotasunaren eta sufrimenduaren esperientzia dela uste dut. Batzuen iritziz, ezkorra eta masokista naiz gauza hauek esaten ditudalako. Ez. Ni plazerzalea naiz eta bizitzaren poza asko maite dut. Baina bizitzan esperimentatu duzunean plazer adina oinaze, esperientzia horrek, gaixotasun eta sufrimenduak, asko markatzen zaitu. Askok hausten zaitu. Ikasten duzu, alde batetik, lehenagotik ere bazenekiena, baina geroago konprobatzen duzuna. Gizakia zein ahula eta hauskorra den. Eta horretatik guztitik bizitza begiratzeko eta harremanak bizitzeko modu apal eta errukitsuago bat sortzen zaizu.

Horrez gain, Lurdes eta nire harremanari dagokionean, gaixotasuna, sufrimendua eta elkarren behar sakona guztiz erabakiorrak izan ziren: oso sakon lotu gintuen, eta maitasunaren ikuspegi berriak zabaldu zizkigun. Nik uste dut sufrimenduaren esperientzia dela gizatasunaren giltza.

“Gizatasunaren eskolarik sakonenetakoa, gaixotasunaren eta sufrimenduaren esperientzia dela uste dut. Sufrimenduak asko markatzen zaitu, ikasten duzu”

“Euskal literatura irakurtzen dut eta egungo espainiar literaturarik, berriz, ez. Ez dut uste egile interesgarriak dagoenik, eta egotekotan, oso gutxi. Klasikoak bai, irakurri ditut”

”

Zehaztu al zenezake gehiago hori, mesedez?

Ni ulertzeko hau ulertzea garrantzitsua da: plazera, satisfazioa, lorpenak, garaipenak, erotismoaren kunplimendua... horiek denak pertsonaren heldutasunerantzko bilakaeran oso garrantzitsuak dira. Baita ospe pixka bat lortzea ere eta nagusitasun intelektuala.

Hala ere, bizitzaren une batean konturatu ginen plazerak eta gozamenak baino gehiago lotzen dituela bi pertsona gaixotasunak, sufrimenduak eta porrotak. Bizitzaren irakaspén sakonagoak dira. Nire esperientziaren ondorio bezala esaten dut, biok gaixo egonik, sortzen den kontzientzia berri horrek, bi pertsonak elkarrengana sakonago eta seguruago lotzen dituela. Hala ere, ikuspuntu hori batzuei ez zaie gustatzen. Irainduak sentitzen dira bizitzaren alderdi ilunez mintzatzen bazara. “Ze masokista, ze pesimista”, esan izan didate.

Lurdes eta ni jakintsuago, sendoago, egitiago eta lotuago egin gintuen sufrimenduak. Pozarekin, gainera, beti dago itzal ikaragarri bat: dugun hau galtzen badugu, zer gertatuko da? Elkarrekin jarraituko al dugu? Horren erantzun bakarra oso dramatiko da, sufrimenduaren egia. Ez diot inori desiratzen, baina hala da. Sufrimenduak lotu dituenak, eta leial iraun dutenak, betiko lotuta daude.

Horrek guztiak ba al du eraginik edo zerikusirik erlijioarekin? Zu ez zara beti fededuna izan.

Ni gartzetan hasi nintzen erlijioaren praktikak bazterrean uzten, baina gartzetan sinestunak ginen, praktikatzan genuenak. Lurdesek nik baino urte gehiagoz praktikatu zuen. Gero fedea erabat galdu nuen. Arrazoi aldetik, eta psikologikoki ere, iruditu zitzaidan ez nuela horrelako loturarik behar.

Geroago, Lurdesek eta nik gogoeta batzuk egin genituen, eta berak ere praktikatzeari utzi zion. Hala ere, nik uste dut Lurdesek ez zuela sinestuna erabat alde batera utzi.

Baina hogeit urte pasa ondoren, ni 1989an oso gaizki egon nintzenean, hiltzorian, federa itzuli ginen. Pixka bat hobetzen hasi nintzenean, egun batean, Lurdesek galdetu zidan: “Zuk hiru hila-bete hauetan, hain gaizki egon zarenean, otoitz

egin al duzu?”. Eta nik baietz. Egia zen. Berak esan zidan berak ere erreztatu zuela, eta ez zitzaiola bidezkoa iruditzen egun haietan otoitz egin bagenuen gero mutu geratzea. Arrazoi osoa eman nion. Eta horrela hasi ginen berriro elizkizunetara hurbiltzen eta fededun bezala bizitzen.

Hala ere, egin dudak hori kontakizun luzeago baten laburpena baizik ez da. Bitarte horretan, agnostiko moduan bizi ginelarik, izan genituen esperientzia harrigarri, ia mistikoak. Leirera igo-tzen ginenean, adibidez, beneditarren otoitzak eta kantak entzutea, eliza hartako isiltasunean zela... *Bezperak, Konpletak, Salbea...* Batzuetan elizatik txundituta irteten ginen gure buruari galdetuz: Zer gertatzen da hemen? Zer misterio, zer presentzia arraro? Esan behar da, gainera, Leireko udako gauak harrigarri ederrak izaten zirela: hango haizearen txistua, isiltasun sakon baina murmurio-tua, Aragoi aldeko mendien kolore urdinakak...

Norbaitek esan dezake hori dena estetika zela. Estetika zen, bai, baina baita zerbait gehiago ere. Blaise Pascal pentsalari frantziarrak idatzi zuen bezala, “argudioak ditu bihotzak adimenak atzematen ez dituenak”.

Juan Mari Lekuonak ere izan zuen zerikusirik horretan guztian, ezta?

Oso gaizki egon nintzen momentu batean, Lurdesek Juan Mari Lekuonari deitu zion, nire laguna izateaz gain, apaiza zelako. Etorri zen eta azken oliadura ematea nahi nuen galdetu omen zidan. Ni ez nintzen ohartu. Medikuek esaten zuen broma-antzean, baina serio, “hemen zer mirari gertatu da? Zure lagun bat etorri zenetik, asko egin duzu hobera”. Kontua da Lekuona hurrengo batean etorri eta azaldu zidala, bigarren aldiz bataiatu izan banindu bezala jokatu zuela. Kontsolamendu bat zela. Ordutik Lurdes eta biok sinestun bezala bizitu gara.


Zer nolako musika entzuten duzu azken boladan?

Musika klasikoa. Klasikoen barruan konpositore eta momentuak ditut. Askok gustatzen zaizkit XVI. mendeko eta XVII.eko Monteverdi, Palestrina, Bach, Mozart aldizka, eta Beethoven. Musika errusiarra eta ekialdeko eliza ortodoxoetako musika liturgikoa ere bai.

“

Euskara egun, gizarte baten hizkuntza bezala, askozaz ere sendoago dago. Bermatuago dago. Lehen hari batetik zintzilik zegoen. Gure denboretan euskara abertzaleen, nazionalisten eta euskaltzale batzuen afizioa zen. Pasio bat”

“Orain beste ur lodi batzuk daude. Gizarte baten baketzearen beharra eta horrekin batera doazen egoera psikologiko, politiko, sozialak. Egungo dema da Euskal Herriko gizartea eta politika nola egituratu. Erronka oso zaila”



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Horrez gain, noizbehinka euskal kantariak ere entzuten ditut. Gauza bereziak. Pier Paul Berzaitz eta Mikel Laboaren azkena. Azken aldian Benitoren kantak ere entzuten ari naiz. Gero, eskura dezakedan musika herrikoia ere bai, baina ez naiz gehiegi saiatzen horretan. Ezagutza txikia dugun kulturetako musikek ere erakartzen naute.

Eta irakurri?

Denetik. Filosofia irakurtzen saiatzen naiz noizbehinka. Azken aldian erlijioaren historiari heldu diot. Judaismoaren historia, alderdi historiko-kulturaletik begiratuta, asko interesatzen zait. *Itun Zaharraren* irakurketa eta judaismoaren bila-kaera, asko interesatzen zaizkit bai intelektualki eta bai espiritualki.

Bestalde, asko irakurtzen dut literatura. Narratiba, poesia zerbait, historiografia, biogra-

fiak... asko gustatzen zaizkit biografia eta historiografia ingelesak.

Euskal literatura irakurtzen dut eta egungo espainiar literaturarik, berriz, ez. Ez dut uste egile interesgarririk dagoenik, eta egotekotan, oso gutxi. Klasikoak bai, irakurri ditut.

Euskarari hainbat poema eta bertso eskaini dizkiozu. Nola ikusten duzu hizkuntza bera?

Orain dela 50 urte eta 20 urte baino askoz hobeto. Euskara egun, gizarte baten hizkuntza bezala, askozaz ere sendoago dago. Bermatuago dago. Lehen hari batetik zintzilik zegoen. Gure denboretan euskara abertzaleen, nazionalisten eta euskaltzale batzuen afizioa zen. Pasio bat.

Bestalde euskara zen, herri xeheak hitz egiten zuen hizkuntza, baliabide oso gutxi zituen. Bagara edo ez gara? Ez zegoen ez administrazioan, ez irakaskuntzan, ez komunikabideetan,

“Batzuetan elizatik txundituta irteten ginen gure buruari galdetuz: Zer gertatzen da hemen? Zer misterio, zer presentzia arraro? Norbaitek esan dezake hori dena estetika zela. Estetika zen, bai, baina baita zerbait gehiago ere”

“Uste dut errukia oso garrantzitsua dela, baina ez garai batean zuen esanahiarekin. Limosnari lotutako zerbait zen, portaera burgesa. Ez. Errukia zerbait askoz ere sakonagoa da: elkarren kide izan, elkarren arduradun izan

”

ez kulturaren, ez literaturaren, eta ez inon. Eguneroko bizitzan zegoen, familian, eta elizan, nahiz eta jendeak ez errekonozitu. Koldo Mitxelena hori zioen: Oiartzunen, zenbat elizkizun dena euskaraz, euskara ederrean. Predikatzailerik kaputxino eta frantziskotarrek euskara oso ederra egiten zuten.

Orain esan dezakegu bagarela. Zer bilakaera izango du hemendik 30 urtera? Ez dakit, baina oinarri batzuk baditu behintzat. Niri oraindik kosta egiten zait pentsatzea Euskal Herriko Unibertsitatean goi mailako irakaskuntza euskaraz emango zenik. Nork sinistuko zuen? Inork ere ez. Heziketa ertainetan, eta batez ere, zientzietan eta matematika eta biologian? Orain badago. Askoz sendago dago. Horrek esan nahi du salbatua dagoenik? Ez. Baina hobeto badago.

*Itsasoa urak haundi dire,
Murgildu nahi dutenentzat,
Gure herriko lanak haundi dire,
Astun dire,
Gogor dire,
Zatiturik daudenentzat*

Urte asko Julen Lekuonaren poema hori lehen aldiz abestuko zenuenetik. Nola ikusten duzu Euskal Herria?

Urak handiak eta nahiko lohiak datoz oraindik. Orduko ur handiak euskaltasunaren ukapenaren urak ziren. Erdararen indarra, herri baten izaeraren ukazioa... beharbada ez arlo teorikoan, baina bai eguneroko bizitzan. Haiek ziren Lekuonak aipatzen zituen ur handiak. Orain beste ur lodi batzuk daude. Gizarte baten bakeztearen beharra eta horrekin batera doazen egoera psikologiko, politiko, sozialak. Egungo dema da Euskal Herriko gizartea eta politika nola egituratu. Erronka oso zaila. Ur horiek nahiko lodiak ikusten ditut. Hobe arinduko balira. Ekaitzaren ondoren datorren ur lohitsu dugu, ez urak handi bakarrik. Bihotz-bihotzez espero dut herri honen baketzea, bidean gelditu diren guztiak ahaztu gabe.

Errukia aipatu izan duzu zenbaitetan. Zer esanahi ematen diozu errukiari?

Uste dut oso garrantzitsua dela, baina ez garai batean zuen esanahiarekin. Errukia limosnari eta benefizientziari lotutako zerbait baitzen, portaera burgesa. Ez. Errukia zerbait askoz ere sakonagoa da: elkarren kide izan, elkarren arduradun izan. Norbaitek sufritzen badu, nik ere sufritu. Bestearen penak ulertzen eta nireganatzen saiatu. Elkarren ondoan egon. Eta errukitsu izan, zabal, ulerkor, intelektualki ere.

Kristautasunaren barruan, erlijio praktikaren atal nagusia da errukia. Eta errukia, besteak beste, gure naturaren jakituria letorke. Ez dagoela inor perfekturik, alegia, eta bere kasa

oso izan daitekeenik. Denok baitugu inperfektioa, akatsa, eskasia; denok baitugu, lehen edo geroago, arlo honetan edo hartan, besteen beharra. Nik uste dut Mendiko Irakaspena irakurri beharko genukeela berriro (Mateoren ebanjelioan).

Eta beste kontu bat; pentsaera modernoan askotan kontrajarri izan dira justizia eta errukia. Eta esan izan da: "Errukia ez, justizia baizik! Justizia obratzen dugunean errukirik ez da behar izango. Mundu guztia zoriontsu izango da, mundu guztiari emango baitzaio behar duena eta tokatzen zaiona. Balibide materialak eta errekonozimendua!". Oso polita da justiziarekiko aldarrikapen hori, baina kontua da justiziaren ideal handi horiek mundu honetan ez direla konplizitzen, eta, alboan miseria eta beharra ikusten duzunean, errukia oso garrantzitsua dela. Gaztelaniazko hitza asko gustatzen zait: "*compadecer*". Bestearekin batera pairatu.

Zure poemaren bat hautatu behar bazenu...

Nire azken poesia liburuko [*Abestitzak eta poema kantatuak* (2006)] zenbait poema asko gustatzen zaizkit. Argitasun handiko eta exaltazio handiko poemak daude. Nafarroan idatzi nituen, udaldietan. Mahastiak, lasaitasuna, argitasuna, lurraldeak, gari sailak. Bizitzaren aldarrikapen indartsu hori, argiaren eta bizitzaren partaide zoriontsu sentitzen nintzela transmititu nahi izan nuen.

Horrez gain, liburu horretan badaude erruari lotutako poemak. Kulpabilitatearen kontzientzia. Zenbait poemarekin nahiko gustura gelditu nintzen. Eta gero, baditut argitaratu gabeko batzuk, orain dela urtebete gaixo egon nintzenean idatzitakoak eta hor ere badaude gauza politikak.

Bada gauza bat asko gustatu zitzaidana, Lurdes hil baino pixka bat lehenago irakurri nuena, bera bisitatzerantz nindoala, udazkeneko egun batean. Elurra egin zuen eta erietzeko aparkalekutik ikusten nuen Bianditz. Elurretan ikusten nuen, azken poema idatzi nuen, Bianditzi buruz, haurtzaroko oroitzapenak nahastuz, Oiartzun eta Nafarroa arteko mendi horiek nola ziren lurralde misteriotsu batera eramanez zeketen atea. Nola zegoen miresmenaren magia bat eta nola negua zetorren. Poema bat idatzi nuen nostalgia handiarekin, eta irakurri dut mila aldiz eta oso gustura gelditu naiz. Poema hori haurtzaro galduaren birgogoetetzea da eta, lotzea orduko lurrak, orduko gure iruditeria, imajinario oraingo nostalgiarekin. Lurdes hil eta gero idatzi nuen nire azken poema; idatzi dudana poema bakarra, Lurdes hil eta gero. Otoitz bat bezalakoa da. Gure sinesmen gune batzuen pintzelkada batzuk jasotzen nituen. ■

argia.com Elkarriketaren bertsio luzeagoa duzue irakurgai gure webgunean.

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO


Hitz gezidunak

MARGUL HARRESI		PERTSO- NAIAREN ABIZENA JOKAMOLDE		FRUTU BILKETA	BERTSOLARIEN LAGUNAK 	HAITZULOA ERAIKUN- TZAN, HABE MOTA		PERTSO- NAIAREN IZENA GARONDO		PRIMATE MOTA HERRI NAFARRA	
BERORIK EZA AHUL, INDARGABE							HARK KOKONDOA- REN FRUITUA				
						SOBERA JANTZI MOTA (PL)	EGOITZA BATEKO ELIZA TXIKIA LEMAZAIN				
IODOA 559 ERROMATAR ZENBAKIZ		FILIPINE- TAKO HIZKUNTZA URTARRIL						EGOKIAK ARGI- BELARRA, LUZERNA			
				HAGOAN DONAMARIA- KO AUZOA (NAFARROA)					No INOLA EZ		
IHESKOR	NOR XII				ERA, MODUA LAKIOA, SEGADA						URDURIA
			EHUN ARINA SARGORIA				ALAIKI ATERA, IRTEN				
TEMA, KASKETALDIA IZPI, PUSKA								NIRE BILO			
					BAKAILAOA PRESTATZEKO ERA GOROTZA					HAMAR MENDELE- BIOA	
BEREZI PALANKA- JOKOAN ARI- TZEN DENA						MARIHUANA ERRESISTEN- TZIA					
								ARRAZA			

Kike Amonarizen umorea

Tren txartela

Zaragoza parean-
edo, kontrolatzai-
leak txartela
eskatu dio
bere eserle-
kuan egun-
karia lasai-
l a s a i
irakurtzen ari
den tolosarrari.
Hark txartela eman
eta kontrolatzaileak:



– Baina, baina! Tren
hau Bartzelonara
doa eta zuk
Madrilerako
txartela
duzu!

– Arraioa!
Eta gidaria
askotan nahas-
ten al da modu
honetan?

Soluzioa

	Z	A							K		M								M
M	U	R	R	U					S	O	L	I	B	A					B
M	H	O	T	Z						B	E	R	A	K					K
M	A	L	E	T			L		K	A	P	E	R	A					A
	I	T	A	G	A	L	O		O	N	A	K							K
D	L	I	X	O	R	E	K	A	N		N	O							O
		Z	E	I	N		M	O	L	D	E	A							A
U	X	O		G	A	Z	A		P	O	Z	I	K						K
P	I	T	S	U	K	E	R	I	A		E	N							E
P	I	Z	A	R		P	I	L	P	I	L	X							X
	T	I	P	I	K	O		K	A	L	A	M	U						U
P	A	L	A	N	K	A	R	I		E	N	D	A						A

Liburuak

KRITIKA

Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska. Leire Bilbao.
Erein. 35 orrialde. 9,90 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle



Ametsa egia denean

“ARMAIRU ZAHAR BAT daukat logelan. Nire aitaren amarena izan zen”. Esaldi horrekin ekiten dio Leire Bilbaok ipuin labur eta interesgarri honen kontaketa. Irakurleak, liburuaren izenburuari erreparatuta, ikusi ahal izan du neskatala bat dela protagonista, liburu zalea –edo ipuinak irakurtzen dituen, behinik behin– eta armairu bat ere ageri dela istorioan.

Eta hain zuzen armairu zahar hori etxetik eraman nahi dute eta asmo horren inguruan eraikita dago ametsa eta errealtatea, oroitzenak eta oraina nahasten dituen ipuin xume eta lortu hau.

Ane, istorio honetako protagonista eta narratzailea, sarritan bere gelako armairu zahar eta handian ezkututzen da liburuak irakurtzeko eta oraingoan ere, izeba Mireni armairua eraman nahi dioten honetan Ane barruan ezkutatu da. Alizia, Tom Sawyer, Pipi... asko dira Anerekin armairu barruan dauden pertsonaiak (guztiak haur eta gazte literaturako klasikoak), eta horiekin konpainian dagoen bitartean Anek hainbat abentura izango ditu armairu zaharra dela eta.

Ipuin laburra da Leire Bilbaok idatzi eta Estibalitz Jalonek edeki, bere estilo propio eta ezagun horretan, ilustraturiko lana. Laburra, baina era berean oso bizia, hainbat lekutan, ametsetan eta errealtatean, plano ezberdinetan... kokaturiko istorioa.

“Amona Antiguaren armairua nire ezkutaleku kuttunena da. Goiko partean linterna bat eta liburuak gordetzen ditut, eta inork molestatu gabe neure kasa egon nahi dudanean bertara sartzen naiz” (10. orrialdea) dio Anek, eta hain zuzen armairu zahar horren magian eta armairua eramaten eginiko bidaian oinarritzen da ipuina; bi mundu dira, armairu barruan Anek bizi duena liburuekin, ipuinetako protagonistekin, eta bestetik armairua eramaten dutenean –Ane barruan geratu delarik– jazotzen diren egoera bitxiak: abandonaturiko traste zaharrez beteriko mendi batean uztean, ijito familia batek hartzen duenean, merkatu batean armairua salgai jartzen denean... Eta abentura horietan –Ane armairu barruan baitago– irakurlea protagonistarekin identifikatzen da; Anek berak narratzeak hori dakar eta; irakurleak neskatalaren begiradaren bidez ikusten baitu guztia, neskatalaren sentimenduen bidez sentitu, Aneren beldurren, jakin-minez edo lasaitasunez –denetarik baitu istorio honetako protagonistak– bizi.

Liburu ederra eskaini digute Bilbaok eta Jalonek, egia eta ametsarekin jolastuz, egia ametsa izan baitaiteke, edo ametsa egia bihurtu. Modu batean nahiz bestean irakurlea ateratzen da garaile obra honetan. ■

Ignazio Aiestaranek totalitarismoaz

Elkar argitaletxeak Eztabaida sailean publikatu du Ignazio Aiestaranek idatzitako *Walter Benjaminen aingerua Gernikako bonbardaketatik*. XX. mendeko ikurretako bat hartzen du Aiestaranek ardatz gisa: totalitarismoaren gerra. 1920 eta 1930eko hamarkadetan Espainiak eta Italiak egindako bonbardaketak, 36ko Gerran Gernikako eta Durangoko

bonbardaketan areagotu ziren, baita esparru ugartara zabaldu ere. Eta gerra estrategia horrek izan zuen babes ideologikorik. Xenofobiaz beteriko diskurtsoak zabaldu ziren gerra totala justifikatzeko.

Horien azterketa eskaintzen du liburuak, datuak, historia eta literatura bilduz saiakera originalean. ■



Walter Benjaminen...
Ignazio Aiestaran.
Elkar.
209 orrialde.
20,50 euro.

Kurdistan ardatz ‘Hegats’ aldizkarian

Euskal Idazleen Elkartean publikatzen duen *Hegats* aldizkariak Kurdistan hartu du ardatz azken zenbakian. Herrialdea ondo ezagutzen duten lumek idatzi dute aldizkaria: Urtzi Urrutikoetxea kazetari eta idazleak *Iparretik Hegora*, *Kurdistan* artikulua sinatu du, baita literatura kurdura hurbiltzeko testu bat ere. Eta gainera, Helim Yusiv eta Berivan Dosky idazleak elkarriketatu ditu. Karlos Zurutuza kazetariak –ARGIAKO irakurleek ezagutzen duzue Kurdistanen egin dituen lanen berri– ere parte hartu du *Hegats* honetan, Kaukason kurdueraz hitz egiten dutenei buruzko idatziarekin. Eta Manuel Martorellek ekialde hurbileko adituak ere bere ekarpena egin du. ■



Hegats.
Batzen artean.
EIE.
118 orrialde.
7 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Sueños podridos.
Sutura.
Baga Biga.
Iraupena: 44'01".
11 euro.

Punk-rock klasikoak, guztia aurrez aurre

TRINTXERPEKO Sutura punk taldeak urte dezente daramatza 1980ko hamarkadako punk klasikoena ezagutzera ematen. Beraiek aitortutako moduan punka luzaroan entzun ostean erabaki zuten taldea sortzea eta ondo pasatzea dute helburu nagusi. Hala ere, eta tasinguru horretan ezin bestela ulertu, honako lan honetan amorru handiko kantak egin dituzte. Emaizta: ez dute erakunde ezta aginte-sinbolorik eraso gabe utzi. Gaztelaniaz abestutako 11

kantatan abiadura eta melodia, biak, batzen dituen punk-rocka egiten dute, nahiz eta baden ilunagoa edo rockeroagoa den piezarik ere. Horien artean, Evaristoren edo Vomito taldeko Victorren oihartzuna ere antzeman daiteke. Horrez gain, baina, *Txuri-Urdin* futbol ereserkia moldatzera ausartu dira, Donostiako txanponaren bi aldeak erakutsiz.

www.myspace.com/sutura

Sutura

«Taldeak ez digu inoiz buruko minik eman, gustuko dugu, gure ilusio handiena da»

No me despiertes (Ez nazazu iratzartu). Guztia hain gaizki egonda, zerk ematen dizue jarraitzeko animoa?

Abesti horretan azaltzen dugu guztia, esperantzak: zerbait gelditzen dela ikus-teak eta horren alde oraindik ere lana egin daitekeela. Taldeak inoiz ez digu buruko minik eman; gustuko dugulako egiten dugu, gure ilusio handiena da.



Donostiak inspiratzen zaituzte?

Bai, halako hiri bat Trintxerpera itsatsita edukitzeak uste baino eragin handiagoa du gugan. Pauso bakarrean txanponaren bi aldeak ikus-tea bezala da.

Realak ez ditu punkiak maite, baina zuek Realak bai. Zer da Realak zuentzat?

Oraindik ez gaituzte futboleko jokatzeko ikusi! Berdin dio punkyaren garen edo ez. Baina ezin dugu ukatu realzale amorratuak garela eta horregatik bertsio-neatu dugula *Txuri-Urdin*.

«Kanpoan ez da ezer gelditzen, egia besterik ez». Zer da sinistu behar duguna?

Zuk ikusten duzuna da egia, beti ere manipulatzeko ez bazaituzte eta beste zerbait ikusarazten ez badi-zuete. Gu geu gara mundua hondamendirako daramagunak, ez egin kasu esaten dizuetenari. ■

Trintxerpekoak zarete, crust-aren lurraldekoak, eta punka egiten duzue.

Crust-ekin oso harreman ona daukagu. Punka egiten dugu hori delako luzaroan entzun eta motibatu gaituena eta, neurri batean, egiten dakiguna. Punkaren barruan estilo desberdinak daude, baina guri haxe, zuzenena da irteteko zaiguna.

Me cago, Amets ustelak... Hainbeste gorroto duzue Espainia?

Lehenengo kantan edozein nazio-

taz hitz egiten dugu, norberak nahiduna, ez dauka zertan Espainia izan, abestiak edozein estatuturi kontra egin nahi dio. Bestalde, *Amets ustelak* kantak frankismoari abesten dio.

Beste gau bat kantan parrandazaleak ohartarazi nahi dituzue?

Norberak uneoro nahi duena egin behar du, norbera da horren erantzule osoa, baina bidean hainbeste jende galtzea oso gogorra da.

Ezpalak

JON TORNER

Topatu.info berritua martxan da

ABIAN DA BERRIZ gazteen komunikazioan erreferentzia bihurtzeko helburuarekin sortu zen topatu.info webgunea.

“Herri eta auzoetako gazte proiektu komunikatibo anitzak izan behar dira ardatz, eta Topatu.info horien guztien topaleku. Komunikazio eredu herritarra garatu beharra daukagu”, diote sustatzaileek. Jendeak bere proposamenak egiteko, norberak intereseko albisteak idatzi eta bidaltzeko, eta eztabaidatzeko guneak presatu dituzte.



Lazkaoko beneditarren artxibo berria ireki dute


HILAREN HASIERAN inauguratu zuten Lazkaoko (Gipuzkoa) Aita Beneditarren Artxibategi Historikoa-aren eraikin berria. Joan Joxe Agirrek azken berrogei urteetan egindako bilketa lanaren fruitu da artxibategian dagoen Euskal Herriko ondare dokumental aberatsa. Frankismo garaitik gaur egunera arte bildutako material ugari jaso dute gordailuan: pegatinak, afixak, liburuak, aldizkariak...

Onintza Enbeita, Miren Amuriza, Beñat Ugarte-txea, Etxahun Lekue, Jone Uria, Arkaitz Estiballes, Eneko Abasolo ‘Abarkas’ eta Peio Ormazabal bertso-lariek kantatuko dute Bizkaiko Txapelketako finalean, hilaren 19an Barakaldoko BEC aretoan.

Ivan Sverko 25 urteko kroaziarrak irabazi du Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa. Bederatzi finalista lehiatu ziren Amaia Udal Antzokian. Arrasaten egin dira Gipuzkoako lehiaketak ere. Seniorren mailan Maria Zubimendi zumaiarra gailendu da.

Joan Mari Torrealдай kazetari eta idazleak jaso du Bizkaiko Foru Aldundiak banatzen duen Lauaxeta Saria, euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik. Saria hartu ondoren egin zuen hitzaldian, Euskal Biblioteka sortzearen beharra azpimarratu zuen Torrealдай.

Mikel Orbegozo euskal presoak eginiko *Preso nago* komiki liburua aurkeztu du Ataramiñek. Espetxeko bizi-moduaz ari da Orbegozo, “barneko sentipenetaz, gauza txikienetaz ere, baina baita espetxeetan isla duen gure herriaren aurkako estrategia errepresiboaz”. Ikuspuntu ironikotik eta umore puntu batekin egin dio so donostiarak kartzeletako errealitateari.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php



ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511
teusa@teusa.com · www.teusa.com



Abarrak

MIKEL GARCIA

Sasi guztien azpitik...

HODEI GUZTIEN GAINETIK. Akelarretik bueltan esamoldea nahasi zuenetik, Kalabazaren satelite izatera kondenatua dago eskuineko argazkiko gizagaixoa. Bai, abenduan 25 urte bete dituen *Kalabaza tripontzia* film gogoangarriko pertsonaia da; Kalabazan gertatzen diren istorio bitxiaren narratzailea, zehazki. Gaur egungo animaziogintza homogeen eta globalizatuan aurkitzea zaila den mundu imaginario aberatsa dario Juanba Berasategi pasaitarraren pelikulari: Tartalo, Galtzagorri, Kukubiltxo, Xaxpiki, lamiak, sorginak, Patxi errementaria... Mitologiari, kondairei eta ahozko tradizioari zor die bere magia animaziozko lehen euskal film luzeak. 3D-en aroan, bi dimentsioko harribitxia.

Dagoeneko 25 urte igaro dira, eta hala ere *Kalabaza tripontzia* nolabaiteko freskotasuna mantendu du. Ironia finak harilkatutako istorio bilduma osatu zuten langile prestuek –izugarritzko ahalegina izan zen garairako ordu eta erdiko animazio filma osatzea–, eta horri esker ikus ditzakegu pantailan Kukubiltxo txikiaren bihurriketariak, Patxik Galtzagorriarekin dituen solasaldi kuriozoak, artzain maltzuraren azpijokoak... Nabarmentzekoa da baita ere euskarari ematen zaion tratamendu landu eta txukuna –kontuan hartzekoa da Koldo Izagirre aritu zela gidolari–.

Noizko *Kalabaza tripontzia* 2? Berasategik dioenez, egunen batean egin behar lukeela pentsatzen du, teknika berriekin baina aldaketa handiegirik gabe, “pertsonaiak mantenduz, gaur egungo egoerara mitologia ekarriz, *katxondeo* gehixeagorekin, konplexuak alboratuta”. Gaur egungo haurrek ikusiko al lukete, ordea? Asiako marrazki bizidun merkeen eraginpean, Anime eta Manga estiloko lanak ugaritu dira gure telebista



Kalabaza tripontzia. Zuzendaria: Juan Bautista Berasategi. Gidoia: Koldo Izagirre
Animazioa. 90 minutu. Euskal Herria, 1985.

kateetan. Iragarkien, marrazkien eta oro har telebistaren erritmo bizkorrera, plano saturatuetara ohitu gara ikusleak. Eta *Kalabaza tripontzia* –zorionez– bestelako patxada dauka, irudiez eta elkarriketez gozatzeko parada eskaintzen duen abiadura.

Egungo haurrek ez dakit, baina ziur naiz belaunaldi batzuk atzeragokook gustura ikusiko genituzkeela bere garaian liluratu gintuzten pertsonaien abentura berriak, begietan eta buruan iltzatuta geratu zaizkigun fotogramak. Eta bestela, pelikula originalera jo dezakete haurtzaroaren nostalgikoek. ■

Ikusi **argia.com**en Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala zuzenean!

Abenduaren 18an, arratsaldeko 16:30etatik aurrera

- Galdera gaiztoak: publikoko pertsona ezagunen adierazpenak
- Bertso saioa oso-osorik
- Saioaren analisisa Agin Rezola eta gonbidatuen eskutik



argia, bertsoa.com eta **info7** elkarlanean

Onintza Enbeita, Miren Amuriza, Beñat Ugartetxea, Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes, Jone Uria, Eneko Abasolo "Abarkas" eta Peio Ormazabal

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Zenbat izar dago unibertsoan?

GURE HISTORIAN ikerlari ugari saiatu da unibertsoan dauden izarren kopurua ezagutzen, baina denek porrot egin dute. Hala ere, bi astronomo estatubatuar, Pieter van Dokkum (Yale Unibertsitatekoa), eta Charlie Conroy (Princeton Unibertsitatekoa), Hawaiin dagoen Keck behatokiko teknologiaz baliatu dira galaxia eliptikoetako izar kopurua zenbatzeko.

Zortzi galaxia eliptiko zahar aztertu dituzte, hau da, unibertsoaren historian oso garaiz sortu zirenak eta guregandik 50 eta 300 milioi argi-urte bitarteko distantziara daudenak. Abenduaren hasieran eman dute aurkitutakoaren berri *Nature* aldizkarian.

Gure galaxian 400.000 milioi izar daude gutxi gorabehera, eta aztertutako galaxia eliptikoetan bost edo hamar aldiz gehiago dagoela adierazi dute ikerlariok. Horiez gain, eguzkiaren masaren %10 edo %20 duten nano gorri ia ukiezinak daude; horien kopurua gure galaxiako izarrena baino hogeitaz handiagoa izan daiteke. Baieztapen horrekin batera beste hau ere egin daiteke: izar gehiago baldin badago, planetak ere ugariagoak izango dira, eta gure Lurraren antzeko planetak existitzeko aukerak ere handiagoak izango dira.



Deba Garaian konpostaren bidea zabaltzen

Hondakin solidoen birziklapenaren inguruan hainbat ekimen egiten ari dira munduan zehar. Euskal Herrian ere gero eta urrats gehiago ematen ari da bide horretan. Hona hemen horietako bat.

<http://ttiki.com/20527> (Gaztelaniaz)

Bakterio batzuk artseniko soilaz elika daitezke

NASako astrobiologia sailaren arabera, bakterio batzuk artsenikoz elikatu daiteke; orain arte fosfatoetan baino irauterik ez zutela pentsatu izan da. Aurkikuntza honek aditzera ematen du Lurretik at topa dezakegun bizia uste genuena baino anitzagoa izan daitekeela bere formetan.

<http://ttiki.com/20528> (Gaztelaniaz)

Bihotzekoen eragina garunean



BIHOTZEOA JASAN DUTENEN lo egiteko arazoak eta depresioak izaten dituzte askotan. Montrealeko (Kanada) Sacre-Coeur Ospitaleko ikerlari talde batek bihotzekoen ondorioz zelulen heriotza ez ezik garuneko hainbat neuronena ere gertatzen dela aurkitu du.

Ikerlari horien arabera, garunaren bi eremutako neuronei eragiten die bihotzekoak, umorea eta loa kudeatzen dituztenei alegia. Ikerketa honen garrantzia handia da prebentzio gisa behinik behin; insomnio edo depresio sintomak aldi berean daudenean bihotzeko baten atarian izan gaitzke, eta komenigarria izan daiteke neurriak hartzea.

Biodibertsitatea, oztopoa epidemientzat

Ekosistemetako biodibertsitatea babestuz eta, batez ere, animali espezieen dibertsitatea babestuz, gizakiarentzat arriskutsuak diren bakterioen eta birusen hedapena moteldu egiten da, ikerlari talde baten arabera.

<http://ttiki.com/20529> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Lizartza

GUREA, LIZARRAREN HERRIA. Lizar, Eizaola, Eleixar, Elejarmozaldea, Elejarmozadana, Elejarpe, Elesarmintegi, Elesarrekosoloa, Elesarzaondoa, Elexar, Elexarbe, Elisar, Elixar, Elizardia, Erreisala, Erreisalpea, Erresal, Erresalde, Erresaleta, Erresaletea, Erresaluzea, Errexaleta, Errexalza, Hizarrulla, Izarra, Izartza, Izartzia, Izarza, Lejarmozaldea, Leikalde, Leikarra, Leintz-Gatzaga, Leisarluzer, Leisarrage, Leitza, Leitzabarrena, Leitzagarre, Leitzagoien, Leitzalde, Leitzan, Leitzola, Leitzar, Leitzaran, Leitzarrate, Leitzeaga, Leitzegi, Leitzi, Leitzigoiena, Leitz-Miñota, Leixarreta, Leixartxueta, Leizalde, Leizaraldai, Leizarateka, Leizarduia, Leizargarate, Leizarmozaldea, Leizarondo, Leizarra, Leizarraga, Leizarralde, Leizarrate, Leizarreta, Leizartza, Leizaur, Leizeaga, Lejarazu, Lejarbe, Lejarburueta, Lejarluzer, Lejarraz, Lejarreta, Lejarrola, Lejartza, Lejartzegi, Lejarzo, Lesarra, Lexaburu, Lexantzü-Zünharre, Lexar, Lexarra, Lexarraga, Lexarralde, Lexarreta, Lexartzu, Lexarza, Lexarzaondoa, Lexar-



MATTHIEU SONTAG-CC BY SA

zeta, Lexasu, Lezaeta, Lezama, Lezamiz, Lizardui, Lixarzega, Lizabarria, Lizaberria, Lizaga, Lizage, Lizagorria, Lizaldi, Lizanda, Lizandara, Lizandra, Lizanko, Lizano, Lizanzu, Lizaondo, Lizaran, Lizaranzu, Lizarasu, Lizarazu, Lizarbe, Lizarburua, Lizarde, Lizardi, Lizardia, Lizardiburua, Lizardierreka, Lizardigoikoa, Lizardo, Lizardoia, Lizarduburua, Lizardui, Lizarega, Lizarga, Lizargarate, Lizargi, Lizarguren, Lizari, Lizarogi, Lizarra, Lizarraga, Lizarragabengoa, Lizarrage, Lizarralde, Lizarrara, Lizarraraz, Lizarrate, Lizarre, Lizarreta, Lizarri, Lizarria, Lizarribar, Lizarrieta, Lizarriturri, Lizarrondo, Lizarrusti, Lizarso, Lizarte, Lizartegi, Lizartsain,

Lizartsu, Lizartxo, Lizartza, Lizartzaburu, Lizartzategi, Lizartzia, Lizaso, Lizasoain, Lizate, Lizaur, Lizaurre, Lizaurzabal, Lizeaga, Lizeranzu, Lizingana, Lizkano, Lizoain, Lizola, Lizon, Lizondo, Lizuain, Rejal, Rejalde, Rejalza, Rejalzar, Rejalzo, Rejardua, Resala, Resalalde, Resalza, Resalzea, Risala, Risaleta, Ulizarra, Vallizarga...

140

Fosilak aztertuta gure mundu hau ezagutzeko milioika urte atzera egin dezakegu. Angiosperma edo loreak dituzten landareak dira egun ugariak, eta haien lehen fosil aztertu duela 140 milioi urtekoa da. Mundu honetan, bart arratsakoa.



1825

Nik dakidala, jasota dagoela ezagutzen den xanpain zaharrena 1825ekoa da. Jasota edo gordeta, ondo gordeta edukiko al dute. Perrier-Jouët xanpain etxean dauzkate botilak, bertako markakoak. Marka!



Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Eguberrietako plagio arrakastatsua



Mendeetan margolariak pintatu dituzten eta guk urtero ospatzen ditugun Eguberriak ez dira oso originalak; beste erlijio eta kulturetako tradizioak hartu eta oso modu eraginkorrean moldatu zituzten.

BETLEEM, DUELA 2.010 URTE. Nazareteko Jesus estalpe batean jaio zen. Edo, behintzat, horixe da urtero munduan 2.000 milioi pertsonak ospatzen dutena. Mateok eta Lukasek 70-90 urte geroago idatzitako ebanjelioen arabera, ama birjina zuen, jaioberritan hil egin nahi izan zuten eta urrunetik etorritako beilariek gurtu zuten.

Eguberrietako istorioak Nazareteko Jesusen jatorria handiagotzea du helburu. Horretarako, ama birjinetik jaio izatea elementu eraginkorra izan zen, baina ez berria; Alexander Handia, Augusto eta Platon ere horrela jaio omen ziren. Eta zergatik aukeratu zuten Betleem herrixka? Mikeasen profeziak horixe zioelako, eta hark aurreikusitakoarekin bat etortzeak sinesgarritasuna erantsiko ziolako. Eguberria abenduaren 25ean ospatzeko ohitura geroago etorri zen, Julio I.a Aita Santuak 230. urtean erabaki baitzuen. Horrenbestez, negu hasierako ospakizun paganoa berenganatu zuten kristauak.

Handik hiru egunera Herodes errege ezgaiak, Jesus aurkitu ezinik, haur txiki guztiak hiltzeko agindua eman omen zuen. Baina horren inolako arrasto historikorik ez dago. Eta bai, berriro ere, aurrekariak: Moises

jaio zenean faraoiak ere horixe egin omen zuen. Eta Jesus Moises berri-tzat aurkeztu nahi zuten. Gainera, Herodes K.a. 4. urtean hil zen.

Errege magoen istorioa Mateok bakarrik jaso zuen eta, hala, Jesusen lehen jarraitzaileen artean atzerriarrak izanda, Jesusen irudiak eremu judutarra gaingitu zuen. IV. mendean Leon IV.a Aita Santuak erregeetako bat beltza zela erabaki zuenean, nazioarteko kutsu are handiagoa eman zitzaion erregeen bisitaldiari. Jaioberriari opariak ematea, aldiz, tradizio judutarretik jaso zuten, erdaintzearen ondoren hurrei opariak egiteko ohitura baitzeukaten.

Bestalde, magoak gidatu zituen izarrari azalpen astronomikoak ematen saiatu dira aspaldian. Keplerrek Jupiterrek eta Saturnok bat egin zutela diote. Eta azken urteetan, izar hura Halley kometa zela esan izan da sarri. Baina hain urrutira ez da joan behar izarraren zergatiaren bila. Pertsonaia garrantzitsuen jaiotzari edo heriotzari fenomeno astronomiko bat erans-tea ohikoa zen garai hartan; Julio Zesarren heriotza, esaterako, eklipse batekin lotu zuten. Zertarako asmatu istorio berriak, aurrez eraginkorrak ziren beste batzuk bildu eta moldatzeko aukera izanda?

Arrastoak

Hogei urte zibilizazioekin jokatzeko


CIVILIZATION V bideojokoa, izen bereko sagaren bosgarren bertsioa, kaleratu berri dute. Jokoa duela hogei urte sortu zen eta dagoeneko zortzi milioi ale saldu ditu mundu osoan.

Bideojoko honetan, jokalaria historiako hamazortzi zibilizazioen buru izan daiteke, hala nola George Washington, Napoleon edo Txinako enperatriz Wu Zetian. Erabiltzaileak zibilizazioa historiaurrean har dezake eta aro espazialeraino eramane. Tartean munduko lehen potentzia bihurtzen saiatu beharko du eta, diplomaziak emaitzak eman ez baditu, gudarosteak izango ditu bizilagunei erasotzeko.

Bosgarren edizio honetan etsaien adimen artifiziala eta grafikoak hobetu dituzte. Bitartekoen kudeaketa eta guduak, aldiz, arindu egin dituzte.



Civilization V bideojokoa erabiltzaileak historiako hamazortzi zibilizazio berregiteko aukera du.



Gaiandegiak antolatu zuen mahai-ingurua *Euskal Herriak: Erronka sozio-ekonomikoak* liburua aurkezteko. Ezker-eskuin: Carlos Etxeberri (moderatzaila), Imanol Esnaola (Gaiandegiako idazkaria), Michel Etchebest, Eduardo Zubiaurre eta Mikel Navarro.

Ekonomia mahai-ingurua

Muga bat... bi errealitate?

Gipuzkoako enpresarien presidentek jendaurrean onartu du Ipar Euskal Herriko sare ekonomikoa ez duela ezagutzen. Zer pentsatu behar dugu? Zerk egiten du huts, mugaren bi aldeetako eragile ekonomikoek elkarren ezezagutza hori edukitzeko?

URKO APAOLAZA

GAINDEGIA BEHATEGIAK antolatuta mahai-ingurua egin zen Kutxak Donostiako Arrasate kalean duen aretoan, Euskal Herriko erronka sozio-ekonomikoen inguruan. Bertan izan ziren Eduardo Zubiaurre, Adegiko presidentea, Mixel Etchebest, Mauleko auzapeza eta Artzainak taldeko kidea, eta Mikel Navarro, Deustuko katedraduna eta Orkestra lehiakortasunerako institutuaren ikerlaria. Carlos Etxeberri kazetariaren galderei emandako erantzunetan agerian geratu zen

Iparraldearen eta Hegoaldearen artean muga handiak daudela elkarlan ekonomikorako, eta horietan handiena ezezagutza dela.

Nolakoa da Euskal Herriko egoera sozio-ekonomikoa gaur egun?

Eduardo Zubiaurre: Krisiarekin 2009an jaitsiera garrantzitsua izan zen jarduera ekonomikoan, industriari %25 inguru, eta ondorioz larritasuna eta hainbat egoera gordin nozitu ditugu enpresetan. Momentu honetan gainera, langa-

beziak gora egin du. Ikusten ari gara aurretik lehiakorrek ziren lurraldeek eta enpresek hobeto egin dietela aurre egoerari eta lehiakortasun hori ez zegoen tokietan krisiak ingurua gaiztotu duela. Gure erronkei premia handiagoz egin behar diegu aurre: lehiakortasunean, nazioarteratzean, berrikuntzan hobetu behar da, bai eta lan harremanetan ere, krisi honetatik indartsu atera nahi badugu.

Michel Etchebest: Frantziar krisiari buru emateko beste bide bat



Mahai-ingurua Kutxaren Arrasate aretoan egin zen, Donostian.

hartu da, Estatuak esan du “nik ordainduko dut eta lantegiak bizirik egongo dira”. Negozioa %30 jaitsi da eta lantegi batzuk asko sufritu dute, baina oro har enplegua egon da lantegietan, Gobernuak erabaki zuelako hori ordaintzea. Nik uste hori eskapatzea dela eta ez duela bide zuzenik edo sanorik ematen. Iparralde laborantzatik eta zerbitzuetatik bizi da, kostalde guztia turismora itzulia da. Zuberoraino, aldiz, industria daukagu, ez handia, baina badira 40 bat lantegi. Nola bizi dugun krisi hau? Sanoen diren lantegiak I+G-n lan egiten dutenak dira eta produktu propioak dituztenak, azpikontratatzailerak direnak sufritu dute, zeren eta krisi honetan argi agertzen ez dena, baina agertuko dena da lana eskapatuko dela ekialdera, Txinara-edo, eta horretan ezin dugu buru eman.

Mikel Navarro: Bi aldagai nagusi ikusten ditut: higiezinena eta finantzarena. Lehenengoak ez dit hainbeste arduratzen, oraingo stock-aren digestio kontu bat delako, baina bigarrenak bai. Nolabaiteko kontsentsura iritsi ginen sistemaren arauak aldatzeko eta azkenean badirudi iristen ari garela egoera batera *statu quo* mantentzeko eta botere guneak ez aldatzeko; horrek hipoteka handia ekarriko du etorkizunerako.

Dena den, badaude beste aldaketa handi batzuk kontuan hartu beharrekoak. Esaterako, demografiaren bilakaerak sospetxa ezinak diren efektuak izango ditu ekonomian; eta

teknologiari dagokionez, autogobernatu ahal izan duten eskualdeek abantailak izan dituzte, lehiakortasuna “mikro” planoan dagoelako, eta gure enpresa sarea osatzen duten lantegi txikiek berrikuntza garatu ahal izan dutelako. Alde horretatik, Euskal Herriko aniztasun administratibo eta instituzionala ere abantaila izan liteke gobernantza forma berrietan sakontzeko, hala nola: publiko eta pribatu arteko kolaborazioan. Bestalde, globalizazioaren inguruan ikuspegi erratua dago, zeren eta munduko ekonomian industriari eta esplotazio klusterrek gero eta pisu txikiagoa dute, eta zerbitzuek aldiz handiagoa, baina hauek merkatu lokalaren menpe daude. Jakintzaren arloan, uste dut badagokela iritzi positiboegia gazteriaren

“Nik ez dut ikusten gerorik Iparraldean ez bada tamaina ertaineko lantegi sarerik sortzen”

M. ETCHEBEST

prestakuntza mailaz, ez da soilik jakintza begiratu behar, baita baloreak eta jarrerak ere, eta hor krisi handia dago. Horrez gain, badugu endogamia ikaragarri bat gairatu beharko duguna. Eta bukatzeko, oraindik konpenezina den kontrastu daukagu ingurumenarekin, bistakoa denez, orain arte izan dugun hazkundera ez baita jasangarria.

Globaltasunari gauza txikiekin aurre egin, beraz. Euskal Herriak zein paper joka dezake hor?

E.Z.: Gure indar guneetan oinarritu behar dugu. Badaude sektore traktore batzuk, automozioa, makinarria... Baina baita etorkizunean garatu daitezkeen beste sektore batzuk: mugikortasuna, energia, IKTak... Urrats egokiak emanez gero, etorkizunera begira irteera bat izan dezakegu hortik.

Eta egon liteke elkar osagarritasunik Hegoaldearen eta Iparraldearen artean?

E.Z.: Pertsonalki ez dut Iparralde gehiegi ezagutzen, baina Michelek aipatu duenez, bakoitzak estrategia ezberdina beharko du. Dazkagun errealitateak ezberdinak dira.

M.E: Lurralde antolakuntzan, Hegoaldea, duela 30 urtetik erabakiak hartzeko gai da, batez ere ekonomian. Iparraldean ez dugu ber mundua bizi. Usu esaten dut lantegi batek Akitaniara etorri nahi badu lehenik beharko duela Parisetik pasa. Horrela dago antolatua gure herria, politika aldatzen da, baina administrazioak ez. Pierre Mauroy Mitterranden ministroak hasi zuen deszentralizazioa, nekez, baina azken bizpahiru urtetan ikusten ari gara nola botere guztia berriz ere ari den Pariseratzen. Zer egingo dugu? Ez dugu beste biderik geuk egitea baino. Frantziara badira Airbus, EDF eta horrelako lantegi handiak eta horiek dira lagunduak. Eta gero

badaude gureak bezalako lantegi txikiak. Gu [Artzainak taldean] zazpi enpresa gara eta handienak 50 langile ditu, oso txikiak gara, tartekorik ez dago. Hegoaldean badaude 300-400 langileko lantegiak eta mundu guztian zabaldu daitezke. Nik ez dut ikusten gerorik Iparraldean ez bada horrelako tarteko lantegi saserik sortzen. Hegoaldearekin zer egin? Elkarkidetzatza. Badira hogeitaz hamar urte horretan ahalegintzen ari garela; lantegi bat abiatu genuen Hegoaldeko akzionista batekin... Gero, estrategia ezberdinengatik bereizi ginen. Eurak ziren Euskadikoak, gu Frantziako lantegi bat gara. Elkarlana nola egin, hori da guretzat desafioa.

M.N.: Ni nahiko pesimista naiz. Hegoaldean bertan lurraldetasun ikuspegia falta da. Erabat interkonektaturiko hiru hiriburu ditugu, baina gainjartzen diren planekin, eta sinergia proiekturik gabe. Esaterako, Guggenheimek lor zezakeen akordio bat Atapuercarekin, baina ez dago ikusmenik horretarako, eta erabat lokalak izaten jarraitzen dugu. Lokalismo hori Hegoaldean bertan baldin badugu, oso zail ikusten dut gainditzea estatu muga batekin; Iparraldeak Hegoaldeko enpresei ez die kasik ezer ekartzen, eta bai zailtasun ugari sortu, lan kontratuak aldetik eta abar. Horretarako, Txina bezalako herrialdeetara joatea hobe da.

Baiona eta Donostiako merkatal gantxak sortutako Biartean bezalako erakundeek balio al dute horretarako?

M.N.: Nik ez dut ezagutzen, hortik hasita jada gaizki, ez duelako nahikoa eraginik izan. Ekimen positiboa



Hamahiru elkarrizketa liburu batean

Euskal Herriko gizarte eta ekonomia garapenerako behategiak, Gaindegiak, liburu mamitsua argitaratu du: *Euskal Herriak: erronka sozio-ekonomikoak*. Hamahiru elkarrizketa daude bertan, hainbat kazetarik gure ekonomian erreferentzia diren honako pertsonen eginak: Jon Azua, Ainhoa Etxaide, Michel Etchebest, Anjeles Iztueta, Nekane Jurado, Antxon Lafont, Juan Carlos Longas, Adolfo Muñoz, Mixel Berhokoirigoin eta Paul Nicholson, Koldo Saratxaga, Pedro Luis Uriarte, eta Eduardo Zubiaurre.

Euskal Herriko errealitate sozio-ekonomikoa ezagutu eta etorkizuneko erronkez jakiteko material ezinbestekoa jarri du Gaindegiak irakurleen eskuetan. Xabier Isasi erakunde horren lehendakariak dioenez "gure lurraldeek elkarren



ARGIA / U.A.

beharra dute" eta haien arteko "kohesioa" bultzatu behar da. Kohesio horren atariko gisa aurkeztu du Gaindegiak honako liburua, egungo testuinguru globalarekin nola uztartu hausnartzeko.

izan liteke, eta bide horretan egiten den guztia *chapeau*, baina nik ez du aurrerapen gehiegi ikusten zentzu horretan.

E.Z.: Ekimen horrekin harreman komertziala handitu nahi da. Baina oso mugimendu gutxi ikusten dut, bi esparru ekonomiko oso ezberdinez ari gara eta interesguneak handitzen ez baditugu oso zaila izango da. Nik dakidanez, ekimen hori gehiago da Baionako bazkudearen bidez Frantziako merkatura sartzeko ahalegina.

Ematen du ez dagoela osagarritasunik... ezta sektoreen artean ere?

M.N.: Esaterako, aeronautika sektoreak nolabaiteko garapena izan du hemen, interesa litekeen sektorea da... baina Iparraldeko aeronautika iparraldera igotzen ari da.

M.E.: Egia da diferentzia handiak direla Hegoaldearen eta Iparraldearen artean: erabakitzeke ahalmenean, indar ekonomiko gisa... Baina badugu beste muga bat: elkar ez ezagutzea. Espero dut Gaindegiak hasi duen lana luzaz irautea, lankidetzatza bideak harrapatuko dituguetza. Badira Hegoaldek Iparraldera etorri diren lantegi batzuk, gutxi, eta Frantziako merkaturaren sartzen

dira horrela. Donapaleun Amurriotik etorritako lantegi bat bada 70 langilerekin, trenbideetarako azpiegiturak egiten ditu, SNCFn sartu beste biderik ez zuen... Azkenean, ezarpen industrial bat da, eta industria etorri da gura. Hau da Artzainak-ek eramaten duen lana, industria den ber uste dugu beste guztiak izango direla: jendetzea, zerbitzuak... Hemen entzun dut produkzioak ez duela pisu gehiegirik. Nik ez dut ezagutzen industriadik gabe bizitzen ahal ote den, ba ote? Ariketa interesgarria litzateke, zeren eta ikusten bada bizitzen ahal dela, beste gizarte eredu batetara joango gara.

M.N.: Nik ez nuen esan nahi industria giltzarria ez denik, globalizazioaz ari nintzen, eta nahiz eta gero eta pisu gutxiago duen, industria ezinbestekoa da, gainerako sektoreak arrastatzen dituelako. Dena den, aipatu duzun ezarpen adibidea, Administrazioaren erabaki batek finkaturikoa da, Frantziak erabaki duelako hor produzitu behar dela. Egia esateko, ikuspegi ekonomiko batetik arrazoi oso gutxi daude Hegoaldeko enpresa bat Iparraldean ezartzea bultzatuko luketenak. ■

Arabako Euskaldunon Elkarguneen Topaketak

Euskal guneak sortzen, eta elkar ezagutzen

Arabako euskara elkarteak eta euskaldunen elkarguneak gehiago dira txikiak handiak baino. Alabaina, bakoitza bere neurrian, lanean ari dira. Mugimendu horren erakusgarri izan dira Topaguneak antolatutako azaroko jardunaldiak.

MIEL. A. ELUSTONDO

Argazkiak: Topagunea



Azaroaren 13an eta 20an elkartu ziren Arabako euskara elkarteak eta euskaldunen elkarguneak, batzuk Topaguneko bazkideak eta beste batzuk ez.

EUSKARA ELKARTEEN federazio Topaguneak eta Arabako Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzuak lankidetzan antolaturik egin ziren Topaketak azaroko bi larunbatetan Gasteizen. Gure hizkuntzaren erabilera azkartzeko bidean, topaketek “herritarrek euskararen egoeraren normalizazioan duten eta izan behar duten ezinbesteko funtzioaren inguruan hausnartzeko aukera” izan nahi zuten. Gogoeta egitea ez ezik, elkargunea ere sortu nahi zuten antolatzaileek topaketen

bidez, “Arabako koadrila eta herrietan euskararen alde daudenek elkarren berri izan eta etorkizuneko auzolan posibleetarako aukerak” ahalbidetzeko. Antolatzaileek euskararen erabilera indartzeko litezkeen esparru garrantzizkoenak —hots, lehenestekoak—, identifikatu eta ekarri zituzten topaketetara. Inondik ere, erabilera da kezka nagusia, hala Araban nola Euskal Herrian. Araban esaterako, 25 urtetik beherakoetan euskaldun da %70, nahiz eta erabilera txikia den

zeharo. Egoerari buruzko gogoetak partekatzea zen topaketaren helburuetarik beste bat, jakinik, erabile-raz denaz bezainbatean, norbanakoa dela eragilea. Esan zenez, nahitaezkoa da euskarak presentzia izatea eguneroko bizimoduan, ezinbestekoa euskararen herri dinamika areagotzea, herri erakunde eta gizarte eragileen arteko elkarlana handitzea eta eragileek egiten duten lana behar bezala aitortzea —zeharlerro gisa bada ere—, egiten den ahalegina ez dadin gerta bazterre-



Ezkerrean, azaroaren 13ko hitzaldietako bat. Eskuinean, Gotzon Barandiaran eta Igor Elortza "Kalea, auzolana eta bizipoza" izeneko mintzaldia eskaintzen.

koa, hots, indarrak metatzeko balio dezan.

Lehenengo larunbatean (azaroaren 13an), mintzalagun egitasmoak eta kultur jarduerak lehenetsi zituzten antolatzaileek. Bigarren saioan, azaroaren 20koan, berriz, haur eta gaztetxoan aisialdiaz Sonia Perez eta Nagore Amondarain mintzatu ziren eta euskaldunon elkarguneen inguruko gogoe-ta egin zuten Iñaki Martínez de Lunak eta Iñaki Arrutik.

Mintzalaguna Gasteiz, Barrundia eta Gorbeian

Gasteizko mintzalagun egitasmoa Ane Pedruzok eta Naroa Cuestak, Geu elkartearen programaren teknikariek, aurkeztu zuten.

2007-2008 ikasturtean abiarazi

zuten programa Gasteizen, hainbat eragileren ekimenez: Geu, AEK, Ika, Euskharan, EHE, Udaberri eta Hegoalde euskaltegiak, Bai & Bye... Udalaren Euskara Zerbitzuaren bitartez, berriz, egitasmoa Udalaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) barruan txertatu zuten.

Mintzalagun figurarekin batera, "guraso laguna" ere sortu dute Gasteizen, non ikastetxe bereko gurasoak biltzen diren, euskarari eraginez, gurasoak hizkuntza transmisioan elementu estrategikoak direla aintzat hartuz. Oraintxe, abian da programa hamalau ikastetxetan: martxan dira 85 lagun, hamaika taldetan banaturik.

Pedruzok eta Cuesta teknikariek komunikabideetan egindako lana

Zuian, hogeikontzeju dira, hogeina lagunekoak! Dispersioa dute lehen arazoa, eta lan egiteko baldintza nagusia

—udaletxean bertan egindako prentsaurrekoak bereziki, baina irratiprentsetan argitaratutako iragarkiak, batean eta bestean ezarritako afixak eta gainerakoak bazter utzi gabe—, mintzalaguneko teknikari edo dinamizatzaileen lana, sustatzaile taldeko kideen sostengua... Azken finean, mintzalaguntzaileak erakartzeko egindako ahalegin berezia azpimarratu zuten. Eraginkortasun handiko komunikazio kanpainak matrikulazioan eragitea zuen helburu. Aurten, 500 lagunetara iritsiko direlakoan daude, emakumezkoak, gehienbat. Orain dela hiru urte, aldiz, 227 ziren mintzalagun programako parte-hartzaileak Gasteizen.

Bestelako argazkia ekarri zuen Barrundiako Satola elkarteak. Gasteizen 500, Barrundian bost lagun dira mintzalagunak. Asko dira euskaraz ulertzen dutenak; gutxi, aldiz, hitz egiten ausartzen direnak. Taldean, batzuk entzutera ohi doaz, hiztunago dira beste batzuk...

Arabako geografia eta giza barreiatzearen adibide esanguratsua izan zen Barrundia, eta, halaber, ondoren hitz egin zuten Zuiako lagunena, hots, Zuia bereko Bidabarri, eta Urkabustaizeko Lan eta Jolas elkarteetako ordezkariena.

Topagunean bederatzi euskara elkarte eta beste

Arabian bederatzi elkarte dira, gaur-gaurkoz, 95 euskara elkarte biltzen dituen Topagunea federazioko bazkideak: Ttiki ttaka (Arabar Errioxa), Gutxisolo (Trebiñu), Euskara Añanan Mingainean, Geu (Gasteiz), Bidabarri (Zuia), Txirritola (Aramaio), Belaiki (Barandiaran), Hogeitalau (Aiara) eta Basalarrina (Laudio). Elkarte federatuak horiek izanagatik ere, Topagunea eta elkarte bazkideak harremanetan dira herrialdeko beste zenbait talderekin. Horien artean dira, esaterako, Olbea (Aguirain), Satola (Barrundia), XII. mendea (Kanpetzu), Amezti (Maeztu), Matraka (Eskuernaga),

Kirikio (Zigoitia), Lan eta Jolas (Urkabustaiz)...

Bederatzi elkarteon lanari, bestalde, beste eragile askorena gehitu beharko genioke, Araban hizkuntzaren normalizazioaren alde egiten den ahaleginari itxura hartzekotan. Hezkuntza arloan, kultur-gintzan, komunikazioan, helduen euskalduntzean, aisialdian, kirol ekintza askotarikoetan eta abarretan ari direnen ekimena ez da baitzepadakoa. Hala ere, kalera atera behar oraindik euskara. "Erabilera da erronka" zen leloa oraindik orain. Erabilera soziala. Kale erabilera. Horretan da euskalduna Araban, eta Euskal Herrian.

Manuel Moreno, Arabako Topagunearen ordezkaria

“Euskaldun kontziente eta motibatu asko dago gaur egun Araban”



Euskal Herriko euskara elkarten federazio Topaguneak Araban duen ordezkaria da Manuel Moreno. Azaroko topaketak iragan berri erantzun dizkigu dozena erdi galderok, iritzi eta ebaluazio gisako.

Zer lehen balorazio egin duzue Topaketen inguruan?

Balorazio ona egin dugu. Horretarako, alde batetik, parte-hartzaile guztiei helarazi diegun balorazio-orrian irakurritakoak hartzen ditugu kontuan, eta bestetik, Topaketen antolakuntza prozesuan izan ditugun harreman, truke eta komunikazio aukera ugariak.

Aurreikuspenak bete dituzue?

Zenbait kontu aurreikusten zaila bazen ere, esaterako, zenbat lagun hurbilduko zen, orokorrean, asebeteta geratu gara. Araban, Euskaldunon elkarguneen mugimendu dinamiko, askotariko, eta eragilea badena, ezagutaraztea izan da helburuetako bat, eta neurri handian lortu dugula uste dugu. Gainera, barrura zein kanpora begira lortu dugulakoan gaude, hau da, elkarte eta taldeen arteko ezezagutza gainditzeko urratsa izan da, eta arabar jendartearen elkarte eta talde hauek eta dituzten ikuspegia, helburuak eta egitasmoak, ezagunagoak dira Topaketak pasa ondoren. Euskara elkarte eta tal-

deetako kideez gain, erakundeetako teknikari, ikastetxe, guraso elkarte, aisialdi edota kultur taldeetako jendea ere hurbildu da Topaketetara, guztira 70 bat lagun. Hobetu beharrekoak ere izan dira, noski, esaterako, eztabaida eta iritzi trukerako denbora tarte eta dinamika gehiagoren beharra egon da, zenbait momentutan.

Zein da euskara elkarten federazioak Araban duen mugimenduaren sasoia, osasun egoera?

Gaur egun, dakizuenez, Arabako bederatzi elkarte dira Topagunearen bazkide, eta beste hamabirekin ohiko harremana dugu. Tokiko elkarteak dira, hau da, bakoitza ari da, bere herri edo eskualdeko egoeraren ezagutzatik abiatuta eta ahal duen neurrian, euskararen erabilerarako une eta guneak sortzen eta horrela, harreman euskaldunen sarea josten eta tokiko hizkuntza komunitatea trinkotzen. Egoera ez da bera leku guztietan eta beti, baina orokorrean, esan dezakegu, euskaldun kontziente eta motibatu asko dagoela gaur egun Araban, Gasteizen eta herrietan, horietako dezentee, gero eta gehiago, elkarte eta taldeetan bildu da, eta eragiteko asmoa dute.

Aurrera begirakorik bada?

Araban euskara elkarte eta talde gehiagoren sorreran laguntzea, direnak sendotzen eta eraginkorra izaten sustatzea, horien arteko auzolana bultzatzea, antzeko helburuak dituzten bestelako elkarguneekin ahalik eta gehien konpartitzea, erakundeekiko elkarlana areagotzea, euskararen erabilera normalizazioaren ardatzean kokatzea, denon artean dinamika eraginkor eta aberasgarria sortzea. Euskaldunontzako motibagarriak eta erdaldunentzat erakargarria diren proposamenak egitea... Euskara elkarte eta taldeek Arabako herri eta eskualdetako euskaldun kontzientearen bilgune eraginkorrrak dira eta izan nahi dute. Herriarrek euskararen normalizazioan izan behar duten protagonismoa bideratzeko egiturak dira eta erakundearen babes eta konplizitatea behar dute; ilusioa eta bizipozak, kalean bidea urra dezaten.

Zuian, izan ere, hogeik kontzeju dira, hogeina lagunekoa! Dispersioa dute lehen arazoa, eta lan egiteko baldintza nagusia. Helburua dute “euskararen presentzia ikusarazi eta entzunaraztea bertako herrietan”. Orain bi urte ekin zioten asmoari, Topagunearekin bildu ostean, eta jarraipen batzordearen, koadrilako euskara teknikariaren eta Topaguneakoaren babesa du, udalen diru laguntza eta azpiegiturarekin batera. Egun, Urkabustaiz, Zuia eta

Zigoitia biltzen dira Zuian berean, eta harremanak dituzte Legutio, Aramaio eta Arrazua-Ubarrundiako herrietako mintzalguneekin.

Gorbeia aldeko mintzalgune egitasmoaren koordinatzaileak adierazi zuenez, 6.000 lagun dira bertan, hamaika herritan sakabanatuta. “Eta nork bere herrian nahi du programa, nork bere ordutegian... Lanak dira taldea sortzeko garaian. Hala ere, 31 lagun ginen iaz, sei taldetan banaturik, eta, aldiz, 44 lagun

aurten, zortzi taldetan”. Hiru-lau hilabetearen behin, ekintzaren bat antolatzen dute Gorbeia aldean.

Agerikoa denez, Gasteizen zein Gorbeia aldeko herri txikietan barrena, mintzalgune egitasmoak elkartu egiten du euskara hiztuna, euskararen aldeko ekimenak lotzen ditu haiek, harremanak lantzerak daramatza, eta ekintza nagusien bitartez jende arteko harremanak estutzea lortzen dute. Eta leku guztietan ere, giza baliabidea da oina-

rrizkoena, nahitaezko koordinatzailearen irudia, eta haren dinamikotasuna.

Askoz sortzaileago

Kultur jardueri eskainitako atalean, gogoeta sakona egin zuten Igor Elorzak eta Gotzon Barandiaranek “Kalea, auzolana eta bizipoza” izenburupeko hitzaldian. Haien txandaren ostean, Arabako Bertsotzale Elkarteak 2010ean antolatu duen Koadrila arteko Bertsotzale Txapelketa aztertu zuten Oihane Pereak eta Asier Lafuentek, eta Audioko Basalarrina elkartearen ordezkariak, aldiz, Kantuzaleak egitasmoa azaldu zuten.

Igor Elorzak eta Gotzon Barandiaranek ekintza zehatzen inguruan ez, baina gogoetari eskaini zizkionten beraien tarteak, Mendebaldeko kultur gintza ereduak gurean zenbateraino diren aplikagarri, zenbateraino baliagarri, erantzun ziurrik ez duen bideetan barna galderak ausart eginez.

Euskara bizi eta bizirauteko lanean ari direnei zuzendu zien hitzaldia Igor Elorzak, “Europako hizkuntza zaharrenetarikoa bat bizirauteko” lanean ari diren super gizon edo super emakumei. Oharra ere egin zuen: “Gu gara hori egin dezakegun bakarrak”.

Mendebaldeko kultur gintza ereduaz aztertu, “ikuskizun, kontsumo eta bestelakoetan oinarritutakoa”, Elorzak azaldukoaren arabera, eta Europako hiritar garen aldetik eredu horrek guretzat ere baietz, balio duela esatearekin batera, ezezkoa ere bota zuen: “Ez, ez digu euskaldunoi balio. Askoz sortzaileago izan behar dugu, jarrera sortzailea eta jokabide ekintzailea izan behar ditugu”.

Herri kultur gintza ardatz proposatu zuen Elorzak, hots, ikastolak, alfabetatzea, euskara elkarteak eta beste ekarri dituen kultur gintza mota. “Jende eta espazio publikoa dira gure indarguneak, hor inor bano indartsuago gara, atez atekoan geure buruei burua ari garelako”.

Espazio publikoaren garrantzia azpimarratu zuen—ez zen izan goiz hartan hori entzun zen aldi bakarra—. Herri bizitzan txertatu beharra aldarrikatu zuen eta eragileekin sarea ehuntzeko premia.

Batzuk, bertsoz; kantuz, bestetzuk

Arabako kultur esperientziei eskainitako tarteetan, herrialdean aurtur egin den Koadrila arteko Bertsolari Txapelketaren berri emateko txanda izan zen. Oihane Perea bertsolari eta antolatzaileak azaldu zuenez, Arabako Bertsolari Txapelketa izan zuen abiapuntu aurtengo txapelketa ezberdin honek. Krisi zantzuak saihestu zituzten, errepikak eta inertziaren arriskua, mimetismoa... Egoeraren gaineko hausnarketa egin eta heldu ziren formula berrira, hau da, koadrila arteko txapelketara.

Laudioko Basalarrinako kantuzaleek dastatu dute kantuak dakarren eztitik, eta inoiz deserosotasun eta erridikulu sentipenaren ozpinetik ere bai

Parte hartzea zen helburu, bertso eskolak indartzea. Esaterako, ezinbestekoa zen koadrila taldeak hogeit lagun osatzea: kantari, antolatzaile, epaile, kronikari, argazkilari eta gisakoen artean. Txapelketak bertsolari eta bertso zaleen arteko etena hautsi nahi zuen, eta lortu du; hein batean betiere. Bertsogintza herrikoia eredu indartu da, txapelketak herriak eta eskualdeak aktibatu ditu, bertsolaritza eta euskara ardatz, eta bertso eskola eta euskara elkarten arteko harremana sendotu du —“denok lan berean ari gara” entzun zen goiz hartan hain-

batgarren aldiz—, udal teknikari, euskaltegi eta bestelakoak bilduz, eta euskararen presentzia kalera ekarri.

Laudiotik heldu zen goizeko azken esperientzia, “Kantuzaleak” izenekoa, Basalarrina elkartearen ordezkarien eskutik.

Kontatu zuten, duela hiruzpatalau urte sortu zen ideia, Euskaltzaleen txokoko lagun baita. Kantu tailerra egin zuten eta ikastaroa Basalarrina elkartearen, kantu zaletasunari segida emateko asmatan, eta “euskararen herri presentzia bultzatzeko, erabilera sustatzeko, euskarari herri mailan bide emateko”.

Lau urte dira hiruzpatalau hilabetezko ikastaro trinkoa egin zutenetik. Harrezkero, “borondaterik onenez”, kalera irteten dira kantuan hilean behin, hileroko laugarren martitzenetan, hamabost-hogeiren bat lagun, institutuko musika irakasle Itziar Duandikoetxearen irakaspeni jarraia. Kantatzen dute Audioko kaleetan hilean behin, elkartearen bertako kantu afarian urtean birritan, auzoko jaietan, Euskararen Egunean eta ohiko jai egun handietan, dela San Blasetan edota Eguberrietan. Argitaratuak dituzte kantu liburuttoak, baliatu dituzte Internet eta karaokeak, dastatu dute kantuak dakarren eztitik, eta inoiz deserosotasun eta erridikulu sentipenaren ozpinetik.

Arabako Euskaldunon Elkarguneen Topaketak bukatu ziren. Bitartean, lanean dira euskara elkarteak Araban, eta bertako langile eta laguntzaileak, ogi gogorrari hagin zorrotzez ekinda. ■



Brasillrunen
Colon, 62 IRUN Tel. Fax. 943. 61 50 79



SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan edozein gidabaimenerako

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390
www.solozabalautoeskolak.es

957.600 euroko eskaera Gobernuari

NAFARROAKO AEK-k eta IKAK Parlamentuarekin lankidetzat hitzartzen sinatzea ezinbestekotzat dute. Halakorik ez da gertatu orain arte eta bitartean, 2011ko aurrekontuei begira, 956.600 euro eskatu ditu Nafarroako euskalduntze alfabetatzeko hainbat eragilek. Diru kopuru hori lehen pausotzat dute AEK-k eta IKAK. Eskaria, azken urteetan euskaltegi ez publikoek diru-laguntzetan izan duten beherakadaren testuinguruan kokatzen da. Azken hamarkadan laguntzen jaitsiera, Kontsumo Prezioen Indizea kontuan hartuta, %51koa izan da.

Frantziako Parlamentuan lege proposamena

DIPUTATU TALDE BATEK hizkuntza gutxituen aldeko lege proposamen bat eztabaidatzeko eskaria egin dio Parlamentuko Presidentziari. Alderdi guztietako diputatuek izenpetu dute proposamena, UMPko diputatu batzuek izan ezik. Horiek beste lege proposamen bat aurkeztuko dute. Diputatuek aurkeztutako proposamenaren ez da zuzen ageri hizkuntza gutxituei ofizialtasuna ematearen eskaria, baina eskatzen du zeharkako bideak erabiliz eta eskumenak tokiko erakundeen esku utziz, arloz arlo ofizialtasunak aitortuko lituzkeen hainbat eskubide eta lanabes bermatzea.

BAHEA

Mielk erabiltzaileak Tiraka blogean esanak: “Euskaldun berria naiz eta harro nago! Eta zu, euskaldun zahar hori, ez ote zara zaharregia niretzako? Txo, basko, emoztazu erraztasun apurtxue! Badakizu pribilegiatua zarela, euskaltasuna geneetan daramazula. Brontzezko estatua dirudizu hor goian gu euskaldun berri guztion gainean, zorabioa sumatzen duzu hona behera begiratzerakoan eta nahia go duzu eguna eman zerura begira. Zaharra eta zerutiarra, earra elementua! Apaldu eta jaitsi apal ginetik! Euskaldun berria naiz eta ez dut zahartu nahi, adurra daridala, miresmen aurpegiz zaharroi begira”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Egunean 90 zentimorekin bizirautea

Urrunekoa eta gure kontsumo gizartean ia ezinezkoa iruditzen zaigun arren, milioika pertsona daude munduan egunean euro bat baino gutxiagorekin “bizirauten” dutenak. Milioika lagun horiek landa guneeetan bizi dira, ozta-ozta, munduko populazioak landatarra izaten jarraitzen baitu, hiritarra baino. 3.100 milioi pertsona, hau da, biztanleria osoaren %55, landa guneeetan bizi da, bereziki Afrika, Asia eta Hego Amerikan. Horietatik 1.400 milioi muturreko pobrezian bizi dira –egunean 0,90 euroekin bizi dira–, eta 1.000 milioi inguruk gosea pasatzen du: gosea pasatzen duten hamar lagunetik zazpi landa gunean bizi da. Datu horiek eman ditu Nekazaritzaren Garapenerako Nazioarteko Funtsak idatzitako *Pobrezia landa gunean 2011* txostenak.

Hori da munduko egoera. Sistema ekonomiko injustu, diskriminatzaile, insolidario, terrorista eta hiltzailean bizi gara, eta izen bat du: kapitalismoa. Sistema honek babes politiko handia du munduan: planetako gobernu gehienak. Gobernu horiek, Espainian aire kontrolatzaileen kasuan bezala, esaten dute ez dutela xantaiarik onartzen eta Estatuari pultsua botatzen diotak, galdu egiten duela. Badaude, ordea, beste sektore batzuk, hala nola “Merkatuak” (banka handia, inbertsio eta pentsio funtsak, paradisu fiskalak...), estatuei xantaia egin eta etengabe pultsua botatzen ari zaizenak. Eta merkatuok ez dute galtzen, irabazi egiten dute, herritarren eskubideak eta laguntza sozialak bortxatuz. Kapitalismoa, beraz, etengabe ari zaio estatuari pultsua botatzen eta miseria, pobrezia, gosea eta heriotza probokatzen planetaren zati handi batean, eta beti irabazten du. Ez badugu sistema kapitalista hau geldiarazten, planetaren erdia hilko du.

Juan Mari Arregi

Koro Navarro itzultzaileak

Irutxuloko Hitzan esanak:

“Argi daukat, lanbide honetan ez naizela aberastuko. Guk ez dugu soldata finkorik... Duela bi urte ikusi nuen zenbat irabazten dugun eta jota geratu nintzen. Disgustoa pasa zitzaidan eta nahiko ondo bizi naizela pentsatu nuen”.

Lionel Jolyk Jakinen 180. zenbakian

esanak: “Soziolinguista askok frogatu duenez, hizkuntzaren kasuan ez dirudi beldurra bultzatuz ezer lortzen denik, alderantziz. Emaizta baikorrenak lortzeko, badirudi hizkuntza emozio baikorrek lotu behar dela, hizkuntza erabiltzen denean poztasuna sentitzeko eta ondo sentitzeko.

Kanpaina horietan, beraz, mezu baikorrak eman behar dira eta egiturak ere baikorra izan behar du; adibidez, agintea erabiltzea ez dirudi gauza egokiena, hala ere euskararen erabilera bultzatzeko asko erabiltzen da. Gainera disonantzia kognitiboak sortzen dituzten korapilo emozionalak ahalik eta gehien saihestu behar dira, ahal delarik kanpaina horiek euskara erabiliz korapiloak askatzeko balio behar dute”.

Cancuneko gailurretik Iruñerriko autobusetara

ALDAKETA KLIMATIKOAREN aurka borrokak beste zaplazteko handi bat jaso du NBEko Cancuneko gailurrean, nahiz eta akordioa ia aho batez onartu den (Boliviak aurka bozkatu zuen). Kopenhageko iazko porrotaren ondoren NBE beldur zen: posible ote da aldaketa klimatikoaren nazioarte mailako negoziaketak orain arte bezala bere baitan eta herrialde guztien artean eraman ahal izatea? Nagusiki hori salbatu ei da Cancunen: batetik, herrialde guztien artean negoziatzen jarraituko da eta, bestetik, hurrengo gailurrean CO²ren isurketak murrizteko helburuei helteko konpromisoa hartu da.

Kopenhageko iazko gailurrean erabaki zen aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko 75.000 milioi euroko funtsa sortzea, eta orain horren kudeaketa Mundu Bankuaren esku utzi da. Askoren ustez, gasolina piromanoaren esku utzea ei da, eta bere historian zehar banku honek izandako politikak kontuan hartuta ustea ez da ustela.

Ikus dezagun horren zergatia adibide batean: uraren kudeaketa. Erregai fosilen erabileraren ondorioz, atmosferan gertatutako CO²aren pilaketak sortzen du negutegi eragina Lurrean eta honek era askotako ondorioak baditu ere, larriena uraren zikloan duen eragina da: gero eta ur

gezaren eskasia handiagoa dago munduan. Ura eta aldaketa klimatikoa, beraz, estuki lotuak doaz, zenbat eta ur geza gutxiago, are eta Lurraren beroketa handiagoa, besteak beste ziklo hidrologikoa baita Lurra freskatzen duena.

Oraindik ere AEBetan badira aldaketa klimatikoa zalantzan jartzen dutenak, baina jadanik nazioarteko komunitate zientifikoak ez dio zirrikiturik uzten zalantza horri, mesfidatienak ere hasi ziren berau onartzen *New Scientist* aldizkariak 2007an hala esan zuenean. Zer esan nahi du honek? Oro har, Lurraren eremu lehorrak lehorrago bihurtuko direla, eta tropikoetako zenbait eremu hezeagoak.

Ondorio itzelak izango ditu horrek jadanik gosez diren herrialdeetan, baina egoera larritu ahala, ur eskasiaren mugimendu migrazioaileak gogor astinduko ditu herrialde aberatsenak; eta seguruena, astintzen hasia da jada.

Munduko leku askotan lehortearren ondorioak nabarmenak dira, esate baterako Bolivian, Cancuneko akordioa atzera bota duen herrialde bakarrean. Ondo kudeatuta ere ika-mika handien eragile da ura, txarto kudeatuta gatazken sortzaile. Uraren kudeaketaren pribatizazioa, barbarako, gatazka iturri

izan da munduan zehar. Horren adibide da, 2000. urtean Boliviako Cochabamban izan zen "uraren gerra". Mundu Bankuak Boliviako Gobernua presionatu zuen Cochabambako uraren kudeaketa pribatizazean eta baita lortu ere. Bechtel multinazionalak hartu zuen bere kargu ura eta prezio igoerek laster piztu zuten matxinada. Ohi ez bezala, matxinoak garaile atera ziren eta uraren kudeaketa esku publikoetara itzuli zen Boliviako hirugarren hiri garrantzitsuean. Nekazari *cocaleroen* partehartzea funtsezkoa izan zen erreboltan; Evo Morales izeneko nekazari bat zen hauen liderra.

IRUNERRIKO AUTOBUSEAN "ekologikoa" irakurtzen dut: nekazaritza-erregaietatik dator haien gurpilak mugitzen dituen mama goxoa. Gosea, labore produkzioa eta arazo etikoen gaia alboratuz, kontua da nekazaritza-erregaiak ez direla negutegi eraginaren kontrakoa, alderantziz baizik: nekazaritza-erregai litro bat lortzeko behar den zereal kopuruak 1.000 litro ur behar du. Eta ur xahuketak, gatazkak eragiteaz gain, lurraren beroketa areagotzen du.

Cancunen ondoren, ohartzea bakarrik falta ei da. Gero helburuak jartzea. Eta, azkenik, betetzen hastea.

baga-biga

MUSIKA
BULEGO
INTEGRALA

MUSIKAN
BERRIENA



ESNE BELTZA
NOA
LP



UNE
AKUSTIKOAK
ETA BESTELAKO
UNEAK




GATIBU
ZUZENEAN
BIZITZEKO
GOGOA
DVD+CD

SUTURA
SUEÑOS
PODRIDOS




KORRONTZI
& OINKARI
INFERNUKO
HAUSPOA
DVD



TRASTORNA2
ESCAPANDO

ZAIN
XXI. MENDEKO
PIRATAK



KHERAU
MUNDUAN
ORTOZIK

baga-biga musika ideiak
telef. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

PELLO ZUBIRIA

Klima aldaketaren biktimak borrokan Ande mendietan

Abenduaren lehen egunetan Mexikoko Cancunen klimaren aldaketaz goi bilera burutu da, oihartzun ahulagoa lortuz iaz Kopenhagen eginikoak baino. Aldiz, urtetik urtera nabarmenagoak dira eguraldiaren aldaketak eragindako kalteak. Cancunekoaren bezperan Peruko mendietan ur lapurketaren kontra oldartutako herritarra hil zuten.

THE GUARDIANEK JOHN VIDAL ingurumeneko sailburua bidali du berriemaile berezi lanetara Mexikoko Cancunera, klima aldaketaz abendu hasieran burutu behar zuen bilera nagusira. Baina Yucatango hondartza epelen gozoan entzun beharreko hitzaldi eta agiritako erretolikan murgildu aitzin, Vidalek itzuli handi samarra egin du Perun barna. Hain justu, Cancunen hitz eta pitz jorratuko zen klimaren kanbiatze famatua zertan den bere begiz ikustera.

A climate journey: from the peaks of the Andes to the Amazon's oilfields izenburupean idatzizko kronika mamitsua eta lau bideo eskaini ditu egunkariaren webgunean. 4.700 metroko altueran hasi du bidaia, Cayambe mendiaren elurretan, eta Amazonaseko oihanean bukatu, berrikitan bioaniztasunaren gordailu izendatu den Yasuní eskualdean.

“Tartean –idatzi du John Vidalek– ikusi ditut uragatiko gatazkak, desertuak zabaltzen, ibaiak idortzen, tenperatura extremoak eta gaixotasunak ugaritzen, mintzatu naiz beren begien aurrean elurrak desagertzen ikusita etorkizunaren beldur diren gizakiekin, eta ikusi ditut Gobernuak benetan kezkatuta laster ezingo dituztelako beren jendeak elikatu, ez eta urez eta argindarrez hornitu.

Klimaren aldaketa apenas dager komunikabideetan egunokaz, Can-

cuneko bilkurak minutu gutxi hartu ditu telebistetan, bai behintzat alde ratzen badugu iaz garai beretsuan Kopenhagekoak eduki zuen garrantziarekin. 2010a krisi ekonomikoaren urtea da, European apostuak egiten dira ea Irlandaren ondoren eta Portugalek eta Espainiak joko duten porrota. Baina 2010a estatistikek biltzen duten garaiko urterik beroena izan da. Errusian eta Asia erdikoan udako tenperaturak batzaz bestekoa baino 7,8 gradu gorago ibili dira. Pakistango uholdeek 20 milioi jende kanporatu dute etxeetatik.

Eguraldiak ehunka hondamendi eragin ditu ludi osoan aurtien. Hala ere, leku askotan aspalditik ari dira nabaritzen aldaketak. Vidalek bisitatu ditu horietako batzuk Ande mendien bi aldeetan.

Cayambe mendiaren magalean 4.700 metroan azaltzen da kazetaria lehen bideoan. Ekuatorean egonagatik parajeok beti egon dira izoztuta, 5.900 metro dauzkan gailurraren altzoan. Vidali jakinarazi diote elurrek atzera egin dutela etenik gabe azken 30 urteotan, 600 metro gorago amaitzen dira gaur egun.

Bolivar Caceres glaziarretan adi tuak esan dio Ekuadorrek dagoeneko galdu duela zeukan izotz guztia ren herena. “1980ko hamarkadan hasi nintzen honetan eta geroztik aldaketa azkartzen ikusi dut. Hor-

Provincias Altas Noticias gunetik hartutako argazki honetan Leoncio Fernandez Pachecoren hileta ageri da. Zerraldotan daramate 47 urteko langilea poliziak iraillean balaz hila Cusco (Peru) eskualdeko Espinar herrian manifestazioan ari zela. Majes Siguas II izeneko proiektuarekin Gobernuak urtegi berri batekin bidea moztu nahi dio hango ibaiari, 200 kilometro urrutiago konpainia handiek erregadiorako prestatu dituzten soroetaraino ura eramateko. Aldiz, bertako herritarrak aspalditik kexu dira urik ezagatik. Euriteak asko urritu dira azken urteotan. Aipatu manifestaldian 17 zauritu gehiago izan ziren eta arrestatu andana, baina poliziak aske utzi behar izan zituen komisaldegia inguratu zuten ehunka herritarren haserrearen beldurrez. Gisa honetako gatazkak gero eta ugariagoak omen dira Ande mendietan, klimaren aldaketak gogorren joko duen gunetako bat izaki.

maguneek kilometroka egin dute atzeraka. Cayambek zeukan izotzaren %40 galdu du, agian %10 azken hamarkadan”.

4.100 metrora jaitsita, Peruko Cusco inguruan Pampa Corralera heldu da Vidal. Julio Hanneco baserritarrak hor 215 patata klase erein eta biltzen ditu. Bi glaziarrek ematen omen zioten soroetarako ura eta gauerako argia. Orain joanak dira. Eguraldia aldatu egin da eta ez daki zer ari den jazotzen. “Lehen urtarorak ziurrak ziren eta bagenekien zer noiz erein. Gaur noraezean nabil. Beldur naiz laster ez dugula urik izango eta hori munduaren akabera izanen da guretzat”.

Ura, jana, argindarra

La Paz Boliviako hiriburua 4.058 metroan dago. Hemengo eta Peruko gobernuek badituzte adituen aurrikuspenak elikadura eta ur eskasia datozkiela diotenak. Tenperatura 2-3 graduz berotuko balitz, Titicaca aintzirak daukan uraren %85 galduko luke. Bi milioi jenderen bizimoduak arras aldatuko litzateke. Gainerakoan, Boliviari beroketa globalak Barne Produktu Gordinaren %7ko galera ekar liezaioke 2025erako, gaur irakaskuntzan eta osasunean inbertitzen duena adina.

3.900 metroan dago Paramo eskualdea, Ekuadorren. Lehen baino



askoz euri gutxiago egiten du hemen orain. Herritarrek More herrian aha-
leginak egiten dituzte ura ondo pro-
besteko: aziendak debetaku dituzte,
ubide zaharrak konpondu. Horma-
guneen gibelteak hemen ere eragi-
ten du. Argindarrean ere bai: zentral
hidroelektrikoentzako aski ez dela-
ko, laster Boliviako La Paz hiribu-
ruaren elektrizitatezko hornidura
arriskuan egon liteke.

Peruko Yauri herrian, Espinar
probintzian, itsasoaren mailatik
3.816 metrotara, liskarrak aurkitu
ditu John Vidalen ekipoak herrita-
rren eta poliziaren artean. Espinarre-
ko grebalariei buruzagi dabilen
Nestor Cutirekin mintzatu dira.
Hemen agintariek ura egunean ordu
erdiz ematen dute.

Hori gutxi balitz, Gobernuak tra-
tua egin du hemendik 200 kilome-
trora erregadiotarako behar duten
konpainia handiekin, ibaian kilome-
tro batzuk gorago presa eraiki eta
handik ubidez eraman dezaten.
Barazkien esportazioan Peru txapel-
dun bilakatu nahi du Gobernuak:
esparragoak ipar amerikarrentzako,
gosea bertakoentzat. “Kondenatu
gaituzte poliki-poliki hiltzera. Klima-
ren aldaketaren ostikada da. Uraren
gerra hasi da hemen”. Horrela min-
tzatu da Cuti. Machu Picchu ingu-
ruean greban egon dira asteotan,
herritar bat hil dute poliziek tiroka.
Ez da berririk zabaldu European.

3.700 metrotan dago Huayhuasi,
Perun. Llama eta alpakak hazi dituz-
te beti abeltzainek. Euriak urritu dira

hemen ere. Aldiz, neguan hotza
-17°C-raino jaitsi zen. Elias Paco
laborariak diotso kazetariari hemen
lehen familia batek ehunka azienda
zeuzkala, orain 10-30 baino gehiago-
rentzako alhapiderik ez. Idorteari eta
gelateei aurre egiteko obrak egin
dituzte etxe eta ukuiluetan, Oxfam
erakundeak lagunduta. Klima alda-
ketara egokitzea kario da.

Beheiti darrai *The Guardian*eko
jurnalistak. 3.395 metrotan dago
Cusco Perun. Ingurumen ministe-
rioko funtzionario Victor Bustinza-
rekin mintzatu dira. Probintziatik
atera gabe klimak eragindako 1.000
liskarretik gora eduki dituzte, ziento
erdi bat oso latzak. Euriak urritu
dira. 23.359 hektarea osatzen zituz-
ten hormaguneek orain ez dituzte
9.631 baino, %60ko jaitsiera.

“Glaziarren urtzeak –dio Bustin-
zak– ordaintzen du orain artean euri
falta. Baina izotzak betirako suntsi-
tutakoan ikaragarria izango da.
Dagoeneko argindarrarekin arazo-
ak ditugu. Datozen 30 urteetan
askoz ur gutxiago edukiko dugu. Eli-
kadura segurtasunean eragingo du,
klimaren aldaketak bete-betean joko
du. Ez ditugu jendeak ikaratu nahi,
baina prest egon beharra daukagu”.

Etorkizun ilunari nekez ikusten
zaio konponbiderik. John Vidalek
txangoa Ekuadorren Brasilekiko
mugan bukatu du, Yasuni parke
nazionalan, Kichwa Anongo jen-
dearen artean. Hauek pozik daude
Gobernuak lortu duelako petrolio
ustiatzen duten konpainiei eskuak
gelditzea. Noiz arte? Petrolio dago
klimaren aldaketen oinarrian eta
azken tanta erre arteko onik ez dute
izango potentzia handiek. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Bixente Serrano Izko

Orga-ardatzak

Hori iraulketa hori, Kataluniako orga politikoarena! Itxuraz bai behintzat. Bitan pentsatu gabe atera zen PPko bozemaile bat erranik: “Aldakuntza nahi zuen jendeak eta hemen dugu” edo horrelako zerbait. Nago, orde, ez dela aldakuntzarik gertatu, aldakuntza saio baten porrota baizik, eta horren orde zendeak aurreko segurtasunera itzultzera deliberatu duela: kataluniar nazionalismo sosegatu eta pragmatikoa nagusi, espainiar nazionalismoaren banaketa “naturalagoa” PP eta PSOE artean (bai, PSOE diot nahita, PSOEek batik bat eraman duelako PSC porrotera), kataluniar nazionalismo ezkertiarren postu-galera bere aurrekoraino...

Kataluniarren aldakuntza nahia, nonbait adierazi bada, 2006ko emaitzetan izan zen, hiru alderditako gobernua ahalbidetu zuten haieten.

Alta, porrot egin du gero saioak. Batetik, PSOEek, erranik doa, urkaber bidali duelako PSC, bertzeak bertze kataluniarrei gorrarena eta oro har politika neoliberalari men egiteagatik. Bertzetik, ERCK meritu propioengatik irabazi du bere zigorra: berau zen, dudarik ez, gehien arriskatu zuena PSCrekin gobernu koalizioan sartzean, eta postura ausarta (egokia, nik uste) ipini zuen partidari, baina gero jokaldietan ausarta bezain azkarra izan ez, eta noraezean ibili da (ahaztu gabe PSCren porrotak gobernuakideena ekarri behar zuela, hein batean edo bertzean).

Hautesle anitzek, bada, aldatzeko saioaren porrota ikusirik, beren aurreko babeslekura jo izan dute, nire ustez, hauteskunde hauetan, atzera egin dute nazionalismoaren eta ezkertiarren transbertsaltasunaren aldeko apustu hartan. Botoa PSCri baino gehiago PSOERI eman nahi izan ziotenetako ez gutxi, PPri eman diote orain, antza, eta PSCri sozialista ez hain nazionalistenak bakarrik gel-



JOSU SANTESTEBAN

Kataluniar orain gertatu izanaren antzeko zerbait gerta daiteke EAEn bere unean: PSEren aldeko boto anitzen hasierako frustrazioaz gain, hain larri baitabil Lopez PPri eskutik heldua, eta Zapateroren infernuak kiskal baitezake PSE

ditu bide zaizkio (ken etxeko egongelan geratu zaizkionak, agian). ERCrekin fidatu zirenetako asko CIUra itzuli dira, edo independentzia sartu nahi izan dute eguneroko menuan, edo etxeko egongelan ere gelditu. Badirudi 2006an kataluniar nazionalismoa gehi ezkertiarren nazionalismoa vs. eskuina (kataluniar edo espainiar nazionalista) izan zela nola edo hala hautesleen ardatza, eta oraingo honetan, aldiz, espainiar eta kataluniar nazionalismoen artean moldekatu dela. Gauzak horrela, kataluniarrei matxuren artean matxurari arinena etorri zaielakoa nago, CIU nagusi bihurtu denez.


Aspaldian dugu instalaturik ardatz nazionalista nafar organ, PSN eta UPN/PPren hautua –hau ugazaba, bertzea morroi zintzo–, euskaltzaletasun aktibo edo pasiboarekin zerikusirik duten planteamendu guztien aurka, amorruren amorrur.

Orain, baita Katalunian ere porrot egin baldin badu ardatza aldatzeko saioak, zer erran gure ardatz zurrin hau ordeztzeko aukerez Nafarroan?

EAEn ere, Blancok eta Lopezek erabaki zuten bi nazionalismo arteko ardatza ezartzea orga politikoari, PPekin osatuz gobernu. Eta ardatz horrek du itxura osoa gurgipen artean jarraitzeko. Baina Katalunian orain gertatu izanaren antzeko zerbait gerta daiteke EAEn bere unean: PSEren aldeko boto anitzen hasierako frustrazioaz gain, hain larri baitabil Lopez PPri eskutik heldua, eta Zapateroren infernuak kiskal baitezake PSE.

Nazionalismoen arteko ardatz zurrinaren aldera jo dute PSOEek eta PP/UPNk, eta ideologia zurrinaren altzora –tamalez, ideologiaren “adierazle zurrina”ren eragina gurean, Žižek-en gogoeta psikoanalitiko eta politikoak ene burura etorri– gonbidatzen gaituzte espainiar nazionalismoari uko egiten diogun guztiok. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Arbelaitz Jatetxea

Afaria
bi lagunentzat

Mikeletegi pasealekua, 53
Donostia GIPUZKOA

www.arbelaitz.com

1



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Ondarre baserria
Segura GIPUZKOA

Tel.: 943 801 664

2



Pello Mari Otañoren arnasa 1857-1910

5 liburu opari

Hernandorena Kultur Taldea

www.zizurkil.com

3




Egutegia 2011 euskarriarekin

2 ale opari

argia

www.argia.com

4



Ziztadak

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2255. Argia)

ANDRA MARI

- Julen Goia Eraunzetamurgil (Donostia)

TXURI URDIN

- Teresa Alonso Herreros (Gasteiz)
- Izaro Sudupe Altuna (Azkoitia)

URKI TXAKOLINA

- Andoni Urzelai Eraña (Durango)

INGURU ABENTURA

- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)
- Juanjo Goenaga Izagirre (Astigarraga)
- Donostiako Epaitegia (Donostia)
- Maite Arregi Bereziartua (Bilbo)

ILLIMANI

- Begoña Munduate Aierdi (Ataun)
- Karlos Soraluze Urretabizkaia (Gasteiz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

15
1995★2010

kafe antzokia

kultura hitzorduak ★ kontzertuak ★ aurkezpenak
dantza ★ erakusketak ★ eguneroko menuak
performance-ak ★ antzerkia ★ elkartasun jaiak
bertso afariak ★ olgetan haur jaia ★ gau giroa
urbeltzen dantza ganbara ★ lagun artean kantari

www.kafeantzokia.com

